



**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK DEITUTAKO
LEHIAKETAREN KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA
BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, PROZEDURA IREKIAZ
ESLEITZEKO HONAKO ZERBITZU KONTRATU HAU: 2016, 2017
ETA 2018KO EKITALDIETARAKO EEE/EVE TALDEAREN
BARRUAN DAUDEN SEKTORE PUBLIKOAREN ERAKUNDEEN
URTEKO KONTUEN AUDITORIA EGITEA**

ESPEDIENTE ZENB.:

EEF/16/003

PROZEDURA IREKIA

Bilbon, 2016ko irailaren 29an
Pilar Urruticoechea Uriarte and.
Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia



KARATULA

ADJUDIKATZEKO ERA: Lehiaketa irekia.
ESPEDIENTE ZENB.: EEF/16/003

A. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren helburua hauxe da: 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietarako EEE/EVE taldearen barruan dauden sektore publikoaren erakundeen kontuen auditoriak egiteko zerbitzuak ematea; horiek egiteko Eusko Jaurlaritzak ezarritako arauen arabera, 5. eranskinean azaltzen den bezala, Erakundeak hauexek dira:

- EEE/EVE + Kontsolidatua
- CADEM, S.A.
- Euskadiko Hidrokarburoak Sozietatea, S.A.
- Hidroelektrika Harana-Kontrasta, SA
- Biscay Marine Energy Platform, S.A. (BIMEP, SA)

Eskatzailearen eskura daude 2015eko ekitaldiari dagozkion auditatutako urteko kontuak. Nahi izanez gero, kontratazio honen pertsona arduradun teknikariari eska dakiok.

B. ORGANO KONTRATATZAILEA

EEE/EVE, honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

- I.F.Z.: Q-5150001E
- Pertsona arduraduna, teknikaria: Leonor Prieto Blasco
- Telefonoa/faxa/posta elektronikoa: 94-403.56.00/94-403.56.98/ lprieto@eve.es
- Kontratatzailearen profila: www.eve.es

C. LIZIATAZIOAREN GEHIENENKO PREZIOA

- Lizitazioaren gehieneko prezioa: 140.000 euro (BEZik gabe)
- Lizitazioaren aurreikusitako prezioa: 140.000 euro (BEZik gabe)

D. IZAPIDEA

Ohikoa.

E. PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA

Eskaintzak edo proposamenak 2016ko urriaren 17ko 12:00ak arte jasoko dira.

F. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA

Proposamenak Energiaren Euskal Erakundearen Ekonomia eta Finantza Sailari zuzenduak aurkeztuko dira, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

G. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez dagokio.

H. BEHIN BETIKO BERMEA

Ez dagokio.



I. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio.

J. ZERBITZUA GAUZATZEKO EPEA ETA LEKUA

Epea: 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldiei dagozkien auditoriak egiteko behar den denbora izango da kontratua gauzatzeko epea. Nolanahi ere, Zehaztapen Teknikoen Txostenean (5. eranskinean) jasotzen diren epeak beteko dira.

Lekua: EEE/EVEren bulegoetan eta enpresa esleipendunarenetan.

K. BERMEEI DAGOZKIEN EPEAK

Ez dagokio.

L. PUBLIZITATEAREN GASTUAK

Ez dagokio.

M. ALDAGAIEN ONARPENA

Ez dagokio.

N. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA

Plegu honen 8.5 klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

O. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Esleipena erabakitzeke erabiliko diren irizpide orokorrak hauexek dira:

Irizpidea	Deskribapena	Puntuak
B gutun-azala. Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak		
1	Azalpen memoria eta lanaren metodologia	5
2	Kontratua gauzatzeko ariko den lan taldea	15
C gutun-azala. Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak		
3	Kontratuaren guztizko prezioa	60
4	Lan orduak urtean	20
GUZTIRA		100

Kontratuaren prezioa (gehienez 60 puntu, 100 punturen artean)

$$\text{Lizitzailearen puntuak} = \frac{\text{Eskainitako prezio apalena}}{\text{Lizitzailearen prezioa}} \times 60 \text{ puntu}$$

Lan orduak urtean (gehienez 20 puntu, 100 punturen artean)

$$\text{Lizitzailearen puntuak} = \frac{\text{Lizitzaileak eskainitako orduak}}{\text{Eskainitako gehieneko orduak}} \times 20 \text{ puntu}$$



P. ZIGORTZEA

Plegu honetan aurreikusten direnak.

Q. LUZAPENA

Ez dagokio.

R. LANAK ZATIKA JASOTZEA

V. eranskinean zehazten denaren arabera.

S. PREZIOAREN ORDAINKETA

Prezioaren ordainketa era honetan egingo da:

- %50 aurreberrikusketa bukatzean.
- %50 urteko txostena ematean.

Zatikako ordainketa horietako bakoitza hogeita hamar (30) egun naturaleko epean egingo da, kontratistak edo esleipendunak modu egokian EEERI dagokion faktura ematen eta azken honek onartzen duen egunetik kontatzen hasita.

T. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu eskusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

U. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontratu honetan interesa duten enpresek fiskaltasunari buruzko informazioa lor dezakete foru aldundietan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza saileko Lana eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan egongo da enplegua babesteari, laneko baldintzei nahiz laneko baldintzei buruzko gaietan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa. Horiek guztiak gehi kontratuaren agirietan aurreikusi klausula gehigarriak aplikatzekoak izango dira kontratua exekutatzeko orduan. Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua saileko Ingurumen sailburuordetzan egongo dira –IHOBES sozietate publikoaren bidez– kontratua exekutatzeko aplikatzekoak diren ingurumen auziei buruzko indarreko xedapenen informazioa eta kontratuko agirietan aurreikusi klausula gehigarriak.

Era berean, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen aurkituko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan indarrean diren eta kontratua exekutatzeko orduan aplikagarriak diren xedapenei buruzko informazioa (bestak beste, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunaz diharduena, 3/2007 Lege organikoa, Gizon eta Emakumeen arteko Benetako Berdintasuna lortzeari buruzkoa den legea, hain zuzen ere, eta kontratu honi aplikagarria izango dena.



OINARRIZKO BALDINTZAK

1. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.1. Kontratuaren araubide juridikoa:

- Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan eta bere karatulan zehaztutakoa, baita Zehaztapen Teknikoen Txostenean jasotzen dena ere. Horrekin batera, Energiaren Euskal Erakundeak (“**EEE/EVE**”) onartutako Kontratatzeko Barne Jarraibideetan adierazitakoa (“**KABI**”) eta Kontratzailearen Eskakizuna atalean argitaratua (www.eve.es) eta esleipendunarekin sinatuko den kontratuan jasoko diren baldintzekin eta itunekin bat etorriz. Hala ere, Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan jasotzen ez den gainerako guztiari dagokionez, TRSPKLen I Liburukiko V. Tituluan xedatutako arauak aplikatuko dira.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen arabera (“**TRSPKL**”). Plegu honen klausuletan adierazten diren gaiak dagokienez, soil-soilik.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren arabera, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (aurrerantzean “**HAKLEO**”), aurreko puntuan azaldutako gaiak dagokienez.
- Zuzenbide Pribatuaren arauak aplikagarriak izango dira kontratuaren interpretazio, ondorio, betetze eta amaierari doazkien gaiak ebazteko.

1.2. Lanak egiten arituko diren langileei dagokienez, enpresaburu kontratatzaileek bete beharko dituzte indarrean dagoen lan eta gizarte legeria.

1.3. Kontratuaren edozein alderditako ezjakintasunak edo bertan bildutako dokumentuak eta eranskinak edo itundutakoa gauzatzean zerikusia izan dezakeen Administrazioak xedatutako arau, plegu eta aginduen gaineko ezjakintasunak ez du kontratista edo enpresaburua salbuetsiko kontratua betetzeko obligaziotik.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua Plegu honen Karatularen “**A**” **ATALEAN** adierazia da.

Hori guztia baldintza teknikoaren arabera, Zehaztapen Teknikoen Txostenean adierazten dena. Plegu honetan jasoko dena, **V. eranskin**a, eta betetzeko eska daitezke. Beraz, aipatutako proiektua kontratuan sartuko da eta alde guztiek bete beharko dute.

3. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA, AURREIKUSITAKO BALIOA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

a) Kontratu honen gehieneko prezioa Plegu honen Karatularen “**C**” **ATALEAN** adierazitako zenbatekoa da.

b) Aurreikusitako kontratuaren balioa Plegu honen karatulako “**C**” **ATALEAN** adierazitakoa izango da, eta haren kalkulua TRSPKLen 88. artikuluan xedatutakoa betez egin da, BEZik gabe.

c) Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa.

Kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta era guztietako kanon aplikagarriak sartuta daudela ulertuko da, bai eta Plegu honetan bildutako betebeharrak betetzeak kontratistari ekarri ahal dizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, onurak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, berarentzat lan egiten duen pertsonal teknikoaren ordainsariak, bisak, etab.).



c) Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, EEE/EVEk ez ditu ordainduko, V. eranskinean ageri den Baldintza Teknikoen Txostenaren arabera.

4. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Karatularen “I” **ATALEAN** zehazten dena beteko da.

5. GAUZATZEKO EPEA

Gauzatze epea Plegu honen Karatularen “J” **ATALEAN** adierazitakoa izango da.

Ezarritako epeak betetzeko behar diren aldian aldiko epeak eskaintzan ezarriko dira.

6. ADJUDIKATZEKO ERA

6.1 EEE/EVEren KABIIn dagozkien kontratuei aplikatzen zaizkien arauak aplikatuko zaizkio kontratu honi esleitzeko orduan.

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta esleipena honako fase hauei jarraituz egingo da:

- (i) lehen fasean (“*Eskaintzen aurkezpena*”), interesatutako lizitatzailleek dokumentazio orokorra (A gutun-azala) eskaintza ekonomikoak (B gutun-azala) eta teknikoak (C gutun-azala) aurkeztu ahal izango dituzte;
- (ii) bigarren fasean (“*Kontratatistaren hautaketa*”) lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzen aztertu ondoren, EEE/EVEk kontratua formalizatzeko lizitatzaillea hautatuko du; eta
- (iii) hirugarren fasean (“*Formalizazioa*”), EEE/EVEk eta hautatutako lizitatzailleak kontratua sinatuko dute.

6.2 EEE/EVEk eta kontratatistak men egingo diote informazioaren konfidentzialtasuna babesteko obligazioari, KABIIn 6.(d) atalean ezarritako moduan.

6.3 Kontratazio-organoa “B” **ATALEAN** azaldutakoa izango da.

6.4 Kontratazio-organoari laguntzeko, kontratazio-mahaia edo organo baliokideren bat era daiteke, eta hauxe arduratuko da parte-hartze eskaerak kalifikatu eta eskaintzak baloratzeaz.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

- 7.1 Proposamenak aurkezteko epea zabalik egongo da 2016ko urriaren 17ko hamabiak (12:00) arte.
- 7.2 Proposamenak honako helbide honetara bidali beharko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua. 48001 BILBO. Prentsa eta Komunikazio Sailaren izenean.
- 7.3 Lizitatzailleak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehienezko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko.
- 7.4 Espainiako nahiz atzerriko pertsona fisiko nahiz juridikoek aurkez ditzakete proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa kreditatzen badute.



Halaber, ezaugarri hori kredita dezakete zerbitzu-enpresatzat sailkatuta daudela egiaztatzen badute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko administrazio-kontratuertarako kontsulta-batzordeak emandako ebazpen bidez. Ildo horretatik, karatulako **"N" ATALA** bete behar dute proposamen-egileek.

- 7.5 Proposamenak aurkez ditzakete, halaber, enpresari-taldeek, aldi baterako elkarteak osatzen badituzte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 59. artikulua araututako moduan. Enpresa-taldeko enpresariak beren jardute-gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala kreditatu behar dute agiri honetako baldintzek xedatu moduan, eta, horrez gain, agiri pribatu batean (VIII. eranskina) adierazi beharko dituzte beren izenak eta egoera profesionala, zer-nolako partaidetza duten elkartearen eta, kontratua indarrean den bitartean, zer pertsona edo entitatek ordezkatzeko dituen, ordezkapen-ahalmen osoz, EEE/EVEren aurrean. Enpresari horiek guztiak aldi-baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartu beharko dute, HAKLEOko 24. artikulua xedatutako moduan. Enpresa-elkarteko kide diren enpresetako ordezkari guztiak izenpetu behar dute adierazitako agiria.

Parte hartzeko zerbitzu-enpresa izatea eskatuko balitz, ezinbestekoa izango da, sailkapenak metatu ahal izateko (HAKLEOko 52. artikulua), aldi baterako elkarteko enpresa guztiak izatea beren esku zerbitzu-enpresen sailkapena.

- 7.6 Lizitatuzaileen proposamenetan adierazten diren lizitazio-tipoak, haiek kontratuaren esleipenerako zenbateko zehatz eta jakinetan adierazten diren heinean, bere baitan jasoko dituzte, indarreko araubideari jarraituz, haiei aplikatzekoak diren zerga guztiak. Horren salbuespena BEZa izango da, hura aparteko kontu-sailtzat jasoko baita.
- 7.7 Interesatuak, hala nahiko balute, intereseko dokumentazioa azter dezakete, EEE/EVE erakundeko kontratatzailearen profilean lizitazio hau argitaratzean adierazten den lekuan.
- 7.8 Lizitatuzaileek ezingo dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako karatulako **"M" ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Lizitatuzaileek ezingo dute beste enpresa batzuekin proposamenik izenpetu, baldin eta aurrez banakako enpresari gisa proposamenik egin badute (xedapen horren salbuespen bakarria izango da lote bat baino gehiago izatea eta proposamenak lote bat baino gehiagorako aurkeztea). Printzipio hori urratuz gero, ez dira onartuko enpresariak egindako proposamen guztiak, eta, ildo horretatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 145 artikulua arautzen duena beteko da.

Adierazitakoa betetzekoa izango bada ere, lizitatuzaileek aukera izango dute, kontratuak lote bat baino gehiago baditu, bai kontratu-xede osorako eskaintza bat egiteko (eskaintza hori banakatu egingo da lote bakoitzerako) edo lote bat edo batzuetarako eskaintzak egiteko.

- 7.9 Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu beharko da. Atzerriko enpresek hizkuntza horietakoren batera itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.



- 7.10 Eskaintzarik eginez gero, enpresariak baldintzarik gabe onartuko dituzte baldintza-orri edo Plegu honetako klausula guztiak, eta eskaintza horri ardurapeko adierazpen bat erantsiko diete, EEE/EVEekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituztela esanez.
- 7.11 Izaera konfidentziala. Beharrezkotzat jotzen baldin bada, enpresa lizitatuzaileak, sekretu teknikoak edo komertzialak direla eta, izaera konfidentzialtzat hartzen dituen informazioak eta alderdiak adierazi ahal izango ditu, VII. eranskinean agertzen den ereduaren arabera, eta hori egiteko arrazoiak azalduko ditu. Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoak ez du izaera hori.
- 7.12 Lehiaketatik edo lizitaziotik at geratuko dira jarraian aipatzen diren kasuren batean baldin badaude, EEE/EVEk behar bezala arrazoitu ondoren:
- Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
 - Eskatutako gaitasun enpresarial/ profesionala egiaztatzeko agiririk ez aurkeztea.
 - Plegu honetan eskatzen diren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala egiaztatzeko agiririk ez aurkeztea.
 - Proposamen ekonomiko batzuk aurkeztea, bakarka edo beste enpresa lizitatuzaileekin batera aldi baterako enpresa eratu.
 - Plegu honetan eta zehaztapan Teknikoen Pleguan ezarritako baldintzaren bat ez betetzea.
 - TRSPKLen xedatutako baldintzaren bat ez betetzea.

8 PROPOSAMENEN EDUKIA

- 8.1 Lizitatuzaileek proposamenak hiru gutun-azaletan aurkeztuko dituzte, eta, horietan guztietan datu hauek adieraziko dituzte: lizitatuzailearen izen-abizenak edo enpresaren izena; gaia adierazteko, espedientearen erreferentzia-zenbakia adieraziko dute; eta, kontratu-xede adierazteko, baldintza-orri honetako karatularen "A" **ATALEAN** adierazitakoa zehaztuko dute.
- 8.2 Gutun-azalak helbide honetara bidaliko dira: Energiaren Euskal Erakundea, Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36 - 1. solairua, 48011 BILBO. Baldintza-orri honetako karatularen "E" **ATALEAN** adierazitako epean bidali behar dute, eta/edo, hala adierazten bada, lizitazio-iragarkian zehaztutako epean. "Gaiari" dagokion epigrafean, hau adieraziko da gutun-azal bakoitzean:
- "A" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: dokumentazio administratiboa eta kaudimena"
 - "B" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: iritzi bidez ebaluatzeko irizpideak"
 - "C" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: formula matematiko bidez ebaluatzeko irizpideak"
- 8.3 Baldintza-orri honetako 8.5. atalean zehaztutako agiriak jasoko ditu "A" gutun-azalak, "B" gutun-azalak 8.6. atalean zehaztutakoa eta "C" gutun-azalak 8.7. atalean jasotakoa.
- 8.4 Proposamenak entregatuz gero, lehiatzaileek onartu egin beharko dute lizitazioa, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Proposamena aurkeztu ondoren, ezingo da hura erretiratu, baldin eta EEE/EVEk uste badu badagoela horretarako arrazoi justifikaturik.



8.5 “A” gutun-azal: Dokumentazio administratiboa eta kaudimena.

- EEE/EVEko sarrera-erregistroan aurkeztuko da dokumentazio hori, gutun-azal itxi baten barruan. Gutun-azalean, espediente-zenbakia adieraziko da, eta, horrez gain, baldintza-orri honen karatulako "A" **ATALEAN** adierazitako deskribapena idatziko da, “Dokumentazio administratiboa eta kaudimena” dela iragarritz.
- Dokumentazio administratiboaren atalean, Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitatzailleek eta Estatuko lizitatzailleek eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean erregistratuta daudenean nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz, VI. eta XI. eranskinekin batera, behar bezala osatu eta sinatuta.

Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariak, sarrera-erregistroa agertu, eta agiri hauek erantsi beharko dituzte “A” gutun-azalean:

- a. Proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionala edo haren baliokide den agiri fede-emailea, eta beste pertsonaren baten izenean agertzen edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonak, berariazko ahalorde askietsia ere aurkeztu behar dute.
 - b. Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legediak hala eskatzen badu. Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.
 - c. Jarduteko gaitasuna kreditatzeko, kontratatzeko adina ahalmen ematen duen ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute, aurreko atalean xedatutakoa betez.
 - d. Ardurapeko adierazpena, ahalmendutako pertsona batek izenpetua, eta behar bezala adieraziko duena enpresariak ez duela TRSPKLen 60. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen. Horretarako, Plegu honetako II. eranskina bete eta sinatuko da. Ardurapeko adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du kontratua formalizatu baino lehen.
 - e. VI. eranskina behar bezala betetzea.
 - f. XI. eranskina behar bezala betetzea eta sinatzea.
- Baldintza-orriko karatulako "G" **ATALEAN** hala jasotzen bada, abal bat eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Behin-behineko bermea izango da abal hori, eta atal horretan adierazitako zenbatekoa izan behar du. Hautatutako enpresariak kontratua formalizatzen duenean, amaitu egingo da behin-behineko bermearen indarraldia, eta itzuli egingo zaie hura hautatuak izan ez diren lizitatzaillei.



- Lizitazalearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala kreditatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

1. Finantza-erakundearen txostena, edo, haren ezean, arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguru bat izatearen frogagiria.
2. Urteko kontuak, merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkezteko obligatorik ez duten enpresariak, bestalde, kontabilitate-liburuak aurkez ditzakete, behar bezala legezkatuta.
3. Negozioen bolumenari buruzko adierazpena, edo haren ezean, kontratu honi lotutako jarduerekin zerikusia duten jardueren negozioaren bolumenarena, azken urtean izandakoen datuei dagokienez.

Kaudimen teknikoa edo profesionala:

1. Azken hiru (3) urtean (2013/2014/2015) Eusko Jaurlaritzako sozietate publikoetan, erakundeetan eta instituzio autonomoetan zein energia arloko enpresetan honen antzeko ezaugarriak dituztenen kontratu edo zerbitzu nagusien zerrenda, hau da, urteko kontuen auditoriei lotutako zerbitzuak. Horren ezean, sozietatea eratu zenetik egindako antzeko lanak; betiere haien prezioak, datak eta onuradunak adieraziz.

Enpresen proposamenak onartu ahal izateko, azken hiru (3) urtean (2013/2014/2015) egindako lanen artean, hizpide dugun urteko kontuen auditoria bat (1) burutu dutela egiaztatu beharko dute, Eusko Jaurlaritzako sozietate publikoetan, erakundeetan eta instituzio autonomoetan.

Aipatutako lanak kreditatzeko edo egiaztatzeke, dagokion erakunde eskumendunak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira; edo ziurtagirik ezean, lizitazalearen adierazpen baten bitartez.

2. Esleipen honen lanak egiteko lan-taldearen deskribapena, alor horretan langileen gaitasuna eta esperientzia azalduz. Behar bezala arrazoitutako kausak direla medio, enpresariak ezingo balitu eskatutako erreferentziak eman, bestelako dokumentazioa balia dezake bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kreditatzeko, baldin eta EEE/EVEk egokitzat jotzen badu egiaztapen-bide hori.

- Kaudimena kanpo-baliabideekin integratzea

Kontratu hau egiteko nahiko kaudimena duela egiaztatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartezkoez balia daiteke, erakunde horiekin izango dituen harreman juridikoak edozein direla, betiere kontratua gauzatzeko erabiliko direla egiaztatuz.

Kontratua gauzatu ahal izateko kontratistak bitarteko horiek izango dituela egiaztatze aldera, eta azpikontratistek egingo dituzten lanen zatiek ez dutela kontratuaren prezioaren %50 baino gehiago izango, azpikontratazioari buruzko konpromisoa erantsi beharko da, honako baldintza hauekin:

- a) Hasieran dokumentu pribatuan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa behin-behineko esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentatuko litzateke.



- b) Azpikontratatzeko asmoa duen kontratuaren zatia eta kontratuaren prezioaren aldean zer ehuneko den adierazi beharko dira.
 - c) Kontratuaren esleipenduna izanez gero, azpikontratatzeko dituen enpresen eskura behar beste baliabide jarriko ditu kontratuaren zati hori egiteko.
 - d) Etorkizuneko azpikontrata izenaren bidez identifikatuko da, edo enpresa profilaren bidez. Geroago, esleipendunak beste enpresa batzuk azpikontratatu nahi baditu, TRSPKLen 227.2 artikulua a) eta c) letretan xedatutakoa beteko ditu.
- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko enpresek eta gainerako enpresa atzeritarrek horrela kreditatu behar dute beren jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala:

1. *Gaitasuna*

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna izenpetu duten herrialdeetako enpresek nahikoa izango dute erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea edo HAKLEOko I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztea.
- Gainerako enpresa atzeritarrek,
 - Haien herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrak edo kontsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute. Txosten horrek behar bezala kreditatu beharko du, enpresak hala frogatu ondoren, lanbidezko, merkataritzako edo dagokion alorreko toki-erregistroak inskribatuta daudela, edo, horretarako obligaziorik ez balute, ohikotasunez lan egiten dutela, tokiko lan-eremuan, kontratuaren xedari dagokion jarduera-esparruan.
 - Horrez gain, enpresaren jatorriko herrialdeak Espainian duen Misio Diplomatiko Iraunkorrak edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Orokorrak emandako txosten bat aurkeztu behar dute. Txosten horretan, dagokion herrialdeak Merkataritzako Mundu Erakundeak kontratazio publikoari buruz adostutako ituna izenpetu duela adierazi behar da.
 - Enpresak Espainian sukurtsal bat irekia duela kreditatzen duten agiriak, eta, horietan, zehaztuko da zer ahaldun edo ordezkari dituzten izendatuta enpresa-eragiketarako, eta merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela.

2. *Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala*

Klausula honetako aurreko ataletan adierazitako moduan kreditatuko da. Europar Batasunekoak ez diren enpresa atzeritarrek kreditatu egin behar dute, baldintza hori Espainiako enpresei eskatzen bazaie, sailkatuta daudela, baldintza-orri honetako Karatularen "**N**" **ATALEAN** xedatutako moduan.

- Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan betetzekoa bada, TRSPKLen 67.5 artikulua kontratisten sailkapenari buruz arautzen duena aplikatuko zaie. Lizitazioa enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, kontratazio-organoari kreditatu behar zaio enpresa-elkartea eskritura publiko batean eratu dela, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da. Ordezkari horrek nahikoa ahalmen izan behar du kontratutik eratorritako eskubideak erabili eta obligazioak betetzeko, harik eta kontratua amaitzen den arte. Enpresa-elkarteen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, harik eta azken hori amaitzen den arte.



- Enpresen langilerian ehuneko bikoia edo handiagoa bada ezintasunak dituzten langileen ehunekoak, berariaz emandako ziurtagiri bidez edo agiri egokiz frogatu beharko da baldintza hori betetzen dela, baldin eta enpresek TRSPKLen seigarren xedapen gehigarriak eta Osasun eta Kontsumoko Ministerioak 2001eko abenduaren 17an emandako Aginduak xedatutakoaz baliatu nahi badute.

8.6 “B” gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei lotutako dokumentazioa.

Lizitatzailleak honako dokumentazio tekniko hau aurkeztuko du:

- a) Azalpen memoria eta lanaren metodologia (horren barruan sartuko dira garatu beharreko lanen eta jardueren egutegia). Egingo diren lanen deskribapena eta ezaugarriak, zerbitzua emateko baliabide materialak, Zehaztapen Teknikoen Txostenean jasotzen den bezala.
- b) Kontratua gauzatzen ariko den lan taldea. Giza baliabideen zerrenda, eta zerbitzuari lotutako pertsona bakoitzaren titulazio akademiko eta profesionala. Proposatzen den lan taldea balioesteko eta egiaztatzeko, ariko den langile bakoitzaren CVA aurkeztu beharko da.

Edozein kasutan, Zehaztapen Teknikoen Txostenean eta baldintza-orri honetako **“O” ATALEAN** adierazitakoa esleipen-irizpideak baloratzeko behar den dokumentazio guztiak jaso behar dute lizitatzailleek gutun-azal honetan.

Era berean, lizitatzailleek kontratu honetan jasotzen diren lanen atalen bat azpikontratatzeko asmorik badute, kontratuaren zein atali dagokion zehaztasunez adierazi beharko dute. Horrekin batera, azpikontratazio horren prezioa eta arduradunen gaitasun tekniko edo profesionala ere adieraziko da, IX. eranskinean zehaztutakoaren arabera.

Azpikontratatistek geroago egin dezaketen edozein aldaketa, aldezturik EEE/EVEren baimenaz egingo da, eta Plegu honen 24. klausula edo atalean xedatutakoa beteko da. B gutun-azalak ez du edukiko, inola ere, lizitatzailleak eskaintzen dituen baldintza ekonomikoak edo prezioa. Eskakizun hori ez betetzeak eskaintza bazter uztea ekarriko du.

Adierazitako agiri horietakoren bat faltako balitz edo ez badira zorrotz betetzen aurreko ataletan adierazitako alderdiak, eskaintza bazter uzteko aukera izango da.

8.7 “C” gutun-azala. Formula matematiko bidez kuantifikatu ahal diren irizpideei lotutako dokumentazioa

Baldintza-orri honetako I. ERANSKINEAN jasotako proposamen-ereduari jarraituko zaio (prezioak ezingo du gainditu aurrekontuari ezarri zaion gehienezko zenbatekoa), eta proiektuak adierazitakoa beteko da. Aparteko kontu-sail batean jasoko da balio erantsiaren gaineko zerga.

Proposamen ekonomikoa bide mekanizatuak erabiliz idatziko da eta izenpetuta aurkeztuko da; horiek horrela, ez dira onartuko gabeziak edo akatsak dituzten proposamenak, ezta eskaintzaren edukia zein den argitasunez jakitea eragotz dezaketen murraketak dituztenak. Alderik balego zenbakiz eta idatziz jasotako zenbatekoen artean, azken hori gailenduko da.



Lizitatzailleek ezingo dute, TRSPKLen 145. eta 147. artikuluei jarraiki, proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako Karatularen **"M" ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Bariante bat baino gehiago aurkeztuz gero, bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa aurkeztu behar du lizitatzailleak.

9 PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

- 9.1 Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da.
- 9.2 TRSPKLen 160.1 artikulua xedatutakoa ez da aplikagarria izango, izaera armonizatua duten kontratuei lotutako proposamenei irekieraz.
- 9.3 Eskatutako dokumentazio administratiboa faltako balitz edo aurkeztutako agiriak akastunak badira, ez da onartuko lizitatzailleak egindako proposamena. Proposamenak akats materialak balitu, HAKLEOko 81. artikulua araututakoa beteko da, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haiek zuzentzeko. Posta elektronikoa erabiliko da izapide honen berri emateko; zehazki, lizitatzailleak eskaintzan adierazitako e-postako helbidea.
- 9.4 Baztertu egingo dira gaitasuna eta/edo kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz tekniko edo profesionala egiaztatzen ez diren lizitatzailleak, baldintza-orri honetako ataletan adierazitako moduan egiaztatu beharrekoa, hain zuen ere..

10 ESKAINTZA HAUTATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- 10.1 Esleipenari ekin aurretik, EEE/EVEk eskubidea izango du kontratua bertan behera uzteko, espedientean behar bezala justifikatuta, edo hautatzeko prozedurari ez ekitea, kontratua prestatzeko araudietan edota esleipena bideratzeko prozeduran hauste edo akatsen bat gertatuz gero.

EEE/EVEk kontratua deuseztatu edo bertan behera utziz gero, lizitatzaille bakoitzari 100 euroko kantitatea emango dio.

- 10.2 Lehiaketa esleitu gabe uzten ez badu, esleipena abantailatsuena den proposamenari egiteko aukera izango du EEE/EVEk, eta, horretarako, ez du, ezinbestean, haren balio ekonomikoari erreparatu behar.
- 10.3 Baldintza-orriaren karatulako **"O" ATALEAN** adierazitako oinarrizko balorazio-irizpideak baliatuko dira eskaintzak baloratzeko.
- 10.4 Irizpide gehigarri gisa, baldin eta horrela ezarri bada, eta proposamen ekonomikoei dagokienez, positibotzat joko dira lanak egiteko eta epeak betetzeko bermeak aurkezten badira. Betiere, aipagai dugun zerbitzua behar bezala betetzeko.
- 10.5 Ildo horretatik, proposamen ekonomikoa ez da izango, berez, erabakigarria, baina esleipen-erabakiaren joera izango da, lehiaketako eskaintzei erreparatu ondoren, egin beharreko lanen arrazoizko baliora gehien gerturatzen diren eskaintzak hautatzea.
- 10.6 Balio ezohikoak edo gehiegizkoak. Eskaintza ekonomiko onuragarrienak balio ezohikoak edo gehiegizkoak izango balitu eta EEE/EVEk, enpresak egindako justifikazioa aintzat hartuta eta eskatutako txostenei jarraiki, eskaintza ezin izango litzatekeela bete, balio ezohikoak edo gehiegizkoak direla eta, behin-



behineko esleipena egingo luke bigarren proposamen ekonomiko egokienaren alde, sailkatu diren hurrenkera kontuan hartuz; betiere, EEE/EVEk azken proposamen hori modu onean beteko dela uste badu eta inolako balio ezohiko edo gehiegizkorik ez badu.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak izango ditu honako baldintza hauek betetzen baditu: eskaintzen duen prezioa onartutako proposamenen batez bestekoaren aldean ehunek0 hogeia (%20) gutxiago denean.

Balio ezohikoa edo gehiegizkoaren adierazpenak egin aurretik, harekin zerikusia dutenei informazioa eskatu edo eman beharko zaie, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eta kontratazio organoaren txostenaz gain.

- 10.7 Esleipenerako oinarri diren irizpide objektiboak aztertu ondoren, bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdinketa balitz, enpresa hau aukeratuko da: kaudimen teknikoa kreditatzeko unean, lan-plantillan ezintasunak dituzten langileen kopurua langile guztien ehuneko bikoa (%2).

11 ENPRESABURU ESLEIPENDUNA AUKERATZEA

- 11.1 Eskaintzak baloratu eta enpresaburu esleipenduna hautatzeko gehienezko epea hogeita hamar (30) egunekoa izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera.

Epe hori igaro ondoren, erabakia jakinarazi ez bada, lizitatzailleek, egoki irizten badute, beren proposamenak erretiratzeko asmoa dutela jakinaraz dezakete.

- 11.2 Kontratua sinatu aurretik, zenbait agiri aurkeztu behar dizkio EEE/EVEri hautatutako enpresaburuak. Horretarako, hamar (10) egun balioduneko epea izango du gehienez, agiri horiek eskatzen zaizkion unetik aurrera. Hauek dira agiriok:

a) Zerga-betebeharrak

- Ziurtagiri positiboa, Zerga Administrazio Estatuko Agentziak emana, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.
- Ziurtagiri positiboa, foru-aldundiek emandakoa, administrazioarekin zerga-betebeharrei lotutako zorrik ez duela egiaztatzen duena, edo hertsadura bidea erabiltzeko ez dagokien zergadunen kasuan, borondatezko epean ordaindu ez diren zorren inguruan.

b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak

Ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzaren Lurralde Altxortegiak emandakoa, Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

Jarduera ekonomikoen gaineko zergako alta-agiria edo zerga horretako azken erretribua aurkeztu behar du, eta, horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztuko du (IV. ERANSKINA) zerga horretan baxerik ez duela hartu azalduz. Aurkeztu behar ez baldin badu, hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da.

d) Aseguru enpresak egiaztatuta, aseguru guztien egokitzapena, estaldura eta indarrean dauden dokumentuak, Plegu honen 22. atalean jasotzen diren baldintzen arabera.



e) Behin betiko bermea ezarri izanaren egiaztagiria, karatulan “**H**” **atalean** hala erabaki baldin bada, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 96. artikuluan adierazitako bideak erabiliko dira bermea eratzeko.

f) Beste dokumentu batzuk. Kontratatzeko gai den egiaztatzen duen gainerako dokumentazioa, edo kontratua aurrera eramateko konprometitutako bitartekoak egiaztatzen dituzten dokumentuak.

EEE/EVEko sarrera-erregistroan aurkeztu behar dira agiri horiek guztiak.

Aipatutako epean behar bezala aurkeztu ezean, lizitatuzaileak eskaintza bazter utzi duela ulertuko da. Hori horrela, hurrengo lizitatuzaileari eskatuko zaio dagokion dokumentazioa, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraiki.

11.3 EEE/EVEk bost (5) egun balioduneko epearen barruan esleituko du kontratua, dokumentazioa jasotzen den unetik kontatzen hasita. Esleipen hori justifikatu eta motibatu egingo da eta lizitatuzaile guztiei haren berri emango zaie, jakinarazpen baten bidez (faxa/posta/posta elektronikoa) eta Kontratatuzailearen Profilean argitaratuz.

12 KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

12.1 EEE/EVEk bere gain hartzen du eskaintzaren edukia egiaztatzeko gaitasuna, bai eta kontratuaren formalizazioaren aurretiko dokumentazio administratiboa egiaztatzekoa ere.

12.2 Kontratuaren formalizazioa enpresariari bere eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta hamabost (15) egun naturaleko epean egingo da.

12.3 Kontratuaren formalizazioaren bitartez, EEE/EVEk kontratuzko onarpena adierazten du eta modu horretara, kontratua perfektionatzen da.

12.4 Kontratuak bere baitan bilduko ditu EEE/EVEk kontratatzeke dituen barne arauan jasotako aipamenak.

12.5 Kontratua ezin izango da formalizatu enpresariak baldintza-orri honetan zehazten diren dokumentu guztiak aurkezten ez baditu. Kontratua enpresariari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, EEE/EVEk behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du, horrelakorik izango balitz. Behin-behineko bermerik ez balego, enpresariak EEE/EVEri kalte-ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa (%3) izango da.

12.6 Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, eta formalizazio horretatik eratorritako gastu eta zerga guztiak hautatutako enpresariak ordaindu beharko ditu.

12.7 Kontratua enpresa-talde bati esleituz gero, enpresa horiek talde horren eraketa frogatu beharko dute eskritura publiko baten bitartez eta kontratuaren formalizaziorako zehaztutako epean. Enpresa-taldeari emandako IFZ ere aurkeztu beharko dute.

12.8 Esleipendunak isilean gorde beharko ditu kontratua dela eta ezagutuko dituen eta kontratuarekin zerikusia duten ezkutuko datu eta aurrekari pribatuak.



13 KONTRATUA GAUZATZEA

a) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.

b) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.

c) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita EEE/EVErentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrekin eragindako ondorioen erantzukizuna ere.

d) Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).

e) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da

f) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigorputa dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.

g) EEE/EVEk ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldeztu aurretik baimendu ez duen ezein lan.

14 KONTRATUAREN ALDAKETA

1. Honako kasu hauetan alda dezake kontratua EEE/EVEk:

a) TRSPKLen 107 artikuluan xedatutako arrazoiak tartean badira.

b) Baldintza-orri edo Plegu honetako X. eranskinean zehazten diren arrazoiak tartean badira. Nolanahi ere, aldaketa horiek ezin izango dute hasierako kontratuaren ehuneko 20a gainditu.

Kontratistak derrigorrean onartu behar ditu aldaketa horiek eta ez du kalte-ordainik eskatzeko eta jasotzeko eskubidea, kontratuaren xedea gauzatzeko lanen gutxitzea edo bertan behera uztea ekarriko badute ere.

2. Kontratuzko aldaketen prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarri eta horiek negoziatuz.

3. Kontratuzko aldaketen prezioa finkatzeko, kontratistak eskainitako prezioa hartuko da kontuan.

4. Proiektuan aurreikusi ez diren edo oso ezberdinak diren beste obra batzuk egitea, zerbitzuak edo hornidurak baldin badaukartzate aldaketek, horien prezioak EEE/EVEk ezarriko ditu, aldeztu aurretik kontratistari jakinarazita, hiru (3) eguneko gutxienez epean. Ezarritako prezioak onartu ezean, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontrata ditzake aldaketen ondoriozko lan horiek, ezarritako prezio berean edo gauzatu ditzake zuzenean. Beste enpresaburu batekin egin daitezkeen kontratazio EEE/EVEren kontratazioari lotutako barne jarraibideen arabera egingo da; betiere, kontratuaren kantitatea kontuan hartuz.



5. Kontratuan egin litezkeen aldaketak idatziz azalduko dira.
6. EEE/EVEren aldetik kontratuaren aldaketa adostuta ere, eta horrek lanen atal batzuk egiten jarraitzeko eragozpenik eragingo balu, kontratua behin-behinekoz, aldez edo betiko bertan behera uztea adostu beharko litzateke, kasuan kasu.
7. Aldaketen bideratzeak lanen atal batzuk behin-behinekoz, aldez edo betiko bertan behera uztea eskatzen badu, eta horrek interes publikoari kalte handia eragingo balio, EEE/EVEk erabaki dezake lanekin segitzea behin-behinekoz, kontratuaren arduradunak prestatuko duen proposamen teknikoaren arabera; betiere, aldaketaren arrazoiak Baldintza-orri honetako klausulekin bat etorritik eta hori finantzatzeko nahiko krediturik izanik.

15 KONTRATUAREN LUZAPENA

Ez dagokio.

16 PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratistak EEE/EVEren adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, Baldintza-orri edo Plegu honetako karatulako “A” atalean azaltzen den sozietate bakoitzari dagozkion fakturak aurkeztuta.

Plegu honetako karatulan adierazten da prezioaren ordainketa nola egingo den. Zatikako ordainketa bakoitza hogeita hamar (30) egun naturaleko epean egingo dira, kontratistak faktura eman ondorengo egunetik kontatzen hasita, eta EEE/EVEren oniritziarekin.

Nolanahi ere, ez da inolako ordainketarik egingo kontratua sinatu arte.

Kontratuaren arduradunak emandako berariazko baimena jaso ezean, kontratistak ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

Plegu honetan jasotzen den bezala, Baldintza-orri edo Plegu honetako karatulako “A” atalean azaltzen den sozietate bakoitzak kontratistari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

17 BERMEI DAGOZKIEN EPEAK

Ez dagokio.

18 BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO BERMEA

Ez dagokio.

19 EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIKO ZIGORRAK

a) Kontratista derrigortuta dago kontratua Plegu honetako Karatulan finkatutako epeetan gauzatzera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.

b) Kontratista edozein epean berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango EEE/EVEk aldez aurretik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak EEE/EVEk ezarriko ditu automatikoki.

c) Azken epea amaitu eta kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, EEE/EVEk zigorra ezarri ahal dio, eta gehienez ere %20ko zigorra ezar diezaike. Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten EEE/EVEk kontratistaren



berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta EEE/EVEk kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratistari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrean, kontratuaren arduraduna entzun ondoren.

20 KONTRATISTAK KONTRATUA AKATSEZ BETETZEA EDO ZATIKA BETE GABE UZTEA

EEE/EVEk zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatze eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldiari igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio, eskaera egiteko epea hamabost (15) egunekoa delarik.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, EEE/EVEk lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, EEE/EVEk jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.

21 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

21.1 Lan arriskuen prebentzioa

Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du. baita hura garatzen duen araudia ere, hala nola Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua diona bereziki eta urtarilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuak xedatutakoa

21.2 Enpresa kontratisten gutxieneko betebeharrak laboral eta sozialak

a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzaren inguruan, baita lan segurtasun eta osasunari lotutakoak ere, apirilaren 7ko 3/2016 Legeak xedatutakoaren arabera, kontratazio publikoan klausula sozial batzuk kontuan hartzeaz diharduena (EHAA, 71 zenbakia, 2016ko apirilaren 15ekoa). Beraz, Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralarik eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak – halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.

b) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokienez. Horren harira, hain zuzen ere, eta kontratua esleitu aurretik, langileei aplikatuko zaien sektoreko hitzarmena adierazi beharko du kontratistak; betiere aipagai dugun kontratu hau gauzatzeari begira. Horrekin batera, EEE/EVEri lan baldintzez behar den informazio guztia helaraziko dio, kontratua esleitu ondoren, langileei aplikagarriak izango diren baldintzak, hain justu ere.



c) Kontratua indarrean egongo den bitartean, langileei dagokien sektoreko hitzarmenean jasotzen den soldata ordainduko die kontratistak, langileen kategoria profesionalaren arabera, eta ordainduko den soldata ez da inola ere izango hitzarmeneko baina txikiagoa.

d) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak espresuki adierazi behar du higiene, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

e) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakioken lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

f) EEE/EVEk hala eskatzen badio, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio.

g) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

h) Kontratua hau sinatzeagatik EEE/EVEk ez du inolako betebeharrak eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du EEE/EVERi erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketan arazoaren aurrean.

i) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrak, bai eta kontratistak edo honen azpikontratistek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta EEE/EVERi ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak.

Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio EEE/EVERi. Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan

j) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere EEE/EVEko langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

k) Kontratistari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

l) EEE/EVEk eska dezakeen edozein dokumentazio ez aurkeztea edo berandu aurkeztea, justifikaziorik gabe, apirilaren 7ko 3/2016 Legeak xedatutakoan behar bezala ez betetzea atalaren batean, kontratazio publikoan klausula sozial batzuk kontuan hartzeaz diharduena (EHAA, 71 zenbakia, 2016ko apirilaren 15ekoa), kontratuan sinatutako betebeharren bat ez betetzea izango da, eta, beraz, EEE/EVEk zigorrak ezartzeko eskubidea izango du, plegu honetan ezartzen direnei jarraiki, enpresaburuak ez kontratatzeke debekuari ekiteko prozedura hastea, eta dokumentu honetan azaltzen den moduan kontratua deuseztatzea edo bertan behera uztea.



21.3 Ingurumenari buruzko betebeharrak

Kontratatistak eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landaretan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratatistak. Horretaz gain, EEE/EVEk eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

21.4 Hirugarrenen baimenak

EEE/EVEk bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketak eta kudeaketa-lanak alde batera utzita, kontratatistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatuz. Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratatistak ordaindu beharko du.

22 ASEGURUAK

Kontratatistak honako aseguru hauek eduki behar ditu:

- a) Erantzukizun zibil profesionalaren aseguru. Aseguru honek EEE/EVErentzat diharduten profesionalak (abokatu, ingeniari, ingeniari teknikoek...) beste bati eragin ahal dizkioten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du.

Aseguru hau ospe handia duen aseguru enpresa batekin sinatu behar da, eta gutxieneko kalte-ordaina ez da 600.000 euro baino txikiagoa izango.

1.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratatistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio EEE/EVEri, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketen berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirateke, behar izanez gero, EEE/EVEren iritziz.

2.- Kontratatistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, EEE/EVEk aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontaktzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, EEE/EVEk eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, EEE/EVEk kontratatistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

3.- Aseguruaren inguruan kontratatistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontratistei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, EEE/EVEri eman beharko dizkio azalpenak.

4.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratatistak EEE/EVEri jakinaraziko dio. Era berean, EEE/EVEk hala eskatzen baldin badio, kontratatistak aseguruaren kontratuen kopiak eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio. Kontratatistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.



5.- Kontratataren kargura izango diren arrisku, betebeharrak eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruaren kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebeharrak eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruaren zenbatekoetara mugatuko, EEE(EVEren edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero).

6.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratistak ordaindu beharko du.

23 EGINDAKO LANEN JABETZA. DATU PERTSONALEN ERABILERA. KONFIDENTZIALTASUNA

23.1 Egindako lanen jabetza

EEE/EVEren jabetzapekoak izango dira jasotako zerbitzua eta egindako lanei dagozkien eskubideak, baita hauen jabetza industrial eta komertziala ere, EEE/EVEren esku egonik horien erabilera, beste inork merkaturatu, berregin edo beste era batez erabiltzeko aukerarik izan gabe EEE/EVEk espresuki baimentzen ez badu, eta ondorioz, honek jabetzari dagozkion agiri edo materialak ematea eskatu ahal izango du, aurrekariak, datuak eta prozedura guztiak barne.

Jabetza intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek EEE/EVEren esku utziko dute aipatutako jabetza intelektual edo industrialak.

Jabetza intelektualari atxiki dakizkiokeen lanak EEE/EVEri eskusibaz emandakoak direla ulertuko da, salbu eta aldeztu aurretiko eskubideak dauden kasuetan, halakoetan emakida eskusibotasunik gabe egin daiteke eta.

Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratistak kontratugaitzat jo daitezkeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela EEE/EVEren baimenik gabe. Kontratua indargabetzeko kausa hau gertatzen bada, kontratistak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

23.2 Datu pertsonalen erabilera

Datu pertsonalen erabileratzat honako jardura hauek hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragiteka eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa badute. Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratataren edo azpikontratistaren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako araua hauek beteko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko ditu datuak kontratistak.
2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.
3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiek inon erabiltzeko ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistartzeko ere.
4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean erabiltzeko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait datuen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.



5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:
- a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipatutako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.
 - b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoak, lokalak eta programak behar bezala erabiltzeko.
 - c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatuko ditu. Deuseztapena era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeko aukerarik ez izateko. Fitxategiak itzultzeko edo deuseztatzekeo egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.
6. Kontratua indarrean egongo den bitartean, EEE/EVEk kontrolak egiteko eskubidea izango du, ezarritako segurtasun neurriak, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.

23.3 Konfidentzialtasuna

Informazio konfidentzialtzat joko da kontratistak eskuragarri izango duen informazio pertsonal, kontratuko, banketxe, tekniko edota komertzial oro, kontratatutako zerbitzua egiteko informazioa, hain zuzen ere.

Kontratistak konpromisoa hartzen du modu konfidentzian erabiltzeko halakotzat jotzen den informazio oro, eta plegu honetan azaltzen den xederako baino ez du erabiliko informazioa.

Esleipendunak edo kontratistak kontratatutako zerbitzuei buruz ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpekotzat edo konfidentzialtzat jotzen dira eta beraien identitate eta sekretua gorde behar ditu, eta EEE/EVEk eskatutako lanak egiteko erabiliko du informazioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako kontratistak edo pertsonak ezin izango dute EEEk emandako informazioa zabaltzeko, aldatu edo beste bati eman, kontratua gauzatzeko informazioa den aldetik.

Aldez aurretik EEE/EVEk baimena eman ezean, eman zaion edozein dokumentu ez du erreproduzitu ezta kopiatu ere kontratistak (informazio konfidentziala izan dezakeena), zerbitzua emateko ezinbestekoa denean izan ezik.

Kontratutako zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanik, hala badagokio, kontratistak dokumentuak eta kopiak itzuli egingo ditu, kontratuaren lanak amaitu eta gero, emango zaizkionak hala eskatzen badiu.

Esleipendunak isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalte-galerengatik kalte-ordaina eman beharko die EEE/EVEri, legeriaren arabera lizitatzailari egotzi ahal zaizkion erantzukizunez gain.



24 LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

a) Kontratuaren lagapenerako legezko eskakizunei dagokionez, TRSPKLren 226. artikuluan zehaztutakoa bete beharko da. Dena dela ere, EEE/EVEk aldez aurretik eta berariaz baimendu beharko du kontratuaren lagapena. Kontratua ezin izango da laga, berau esleitzeko arrazoi erabakigarriak jatorrizko kontratistaren gaitasun pertsonal edo teknikoak izanez gero.

b) Kontratistak azpikontratak egin nahi izanez gero, TRSPKLren 227. artikuluan zehazten diren xedapenak bete behar ditu. EEE/EVERi azpikontratu hori adierazten dion idatzian, aipatutako xedapen horiez gain, azpikontratu egikaritzeko baldintza teknikoak ere azaldu beharko dira. Nolanahi ere, azpikontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- (i) Kontratistak aldez aurretik jakinarazi behar dizkio EEE/EVERi idatziz egin nahi dituen azpikontratu guztiak, azpikontratista bakoitzari lotutako kontratuaren aldea adieraziz.
- (ii) EEE/EVEk aldez aurretik onartu behar du.

Halaber, lanak egiten diren bitartean, EEE/EVEk eskubidea izango du azpikontratistak baztertzeko, baldin eta kontratuan adierazten diren lanak behar bezala egiten ez badituzte edo justifikatuta badago.

EEE/EVEk kontratu honetan jasotzen diren zenbait lan onartzeak ez dakar kontratu-harremanik EEE/EVERen eta azpikontratisten artean (langileak, agenteak edo azpikontratistak). Ildo horretatik, azpikontratazioaren inguruan EEE/EVERen parte hartzeak edo lankidetzak ez dio inolako erantzukizunik ekarriko, esleipendunak egin ditzakeen jardueri dagokionez, eta ikuskapenak izan ditzaketen jarduera horien aurrean esleipendunak izan dezakeen erantzukizunetan ez du eraginik izango.

Azpikontratistek esleipendunaren aurrean soil-soilik erantzun beharko dute, eta, beraz, azken horrek bereganatuko du erantzukizun osoa EEE/EVERen aurrean, kontratu hau betetzearen ondorioz, eta berak egin izango balu bezala erantzungo du.

Azpikontratistaren batek egindako erreklamaziotik eratorriko diren edozein kalte edo galeren ondorioz, Esleipendunak EEE/EVERi erreklamazioaren zenbatekoa ordainduko dio.

Azpikontratistek esleipendunak dituen betebeharrak berak izango ditu, kontratu hau betetzeko unean, baldin eta horiek bateragarriak badira. Hala ere, eta goraxeago adierazi den bezala, esleipendunak eman beharko dizkio azalpenak EEE/EVERi kontratu honetan arautzen diren betebeharren betetzearen inguruan.

Azpikontratazioak egiteak ez dio ekarriko esleipendunari bere erantzukizun edo betebeharrak albo batera uztea edo ez betetzea, eta gainera, EEE/EVERen aurrean, honako gertaera hauen erantzukizuna izango du: edozein azpikontratistak edo lagatzailek egin dezakeen akats, zabarkeria, hutsune edo ez-egitea. Modu berean jokatu da horien langileek, azpikontratistek edo eragileek egin ditzaketenen aurrean, akats, zabarkeria, hutsune edo ez betetze horiek esleipendunak edo beronen langileek edo eragileek egingo balituzte bezala. Esleipendunak edo kontratistak betebeharra du azpikontratistari ordaintzeko, hitzartutako prezioaren eta epeen arabera. Kontratistak horrelako betebeharraren bat bazter utziko balu, hau da, azpikontratistari ordainduko ez balie, eta horietako baten batek eskatuko balio EEE/EVERi haren ordainketa, EEE/EVEk atxiki ahal izango du kontratistari eskatzen dioten kantitatea, azken honek ordainketa egin arte, edo zuzenean ordainketa hori egitea; geroago, zenbateko hori prezioetik kenduko litzateke.



Kontratatistak ordainduko ez balu, azpikontratatistek ezin izango diote EEE/EVEri eskatu inolako ordainketarik, erreklamazioa egiten denean EEE/EVEk kontratatistari zor diezaiokeen kantitateaz haratago. Alde horretatik, bai kontratatistak bai azpikontratatistek uko egiten diote espresuki ekintza zuzenari (Kode Zibilaren 1.597. artikulua) EEE/EVEren aurrean, betiere kontratatistak azpikontratatistekin sinatutako betebeharrei dagokienez, kontratua eta azpikontratuak aurrera eramateko.

25 HIZKUNTZA BALDINTZAK ZERBITZU KONTRATUETAN

Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da.

Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da “normalean euskara erabiltzea”: a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezzen, eta b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

26 KONTRATUAREN ARDURADUNA

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, EEE/EVEk kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratatistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkariatzat aukeratzen duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenaz egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenaz dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.

27 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA/DEUSEZTAPENA

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta TRSPKLen 223. artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

- (i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik,



bidezkoa litzateke, EEE/EVEk egokitzen joz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari EEE/EVEk eskatu eta bere horretan gauzatutako lanak ordainduko litzaizkioke soilik, arrazoi honengatik EEE/EVEri kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.

- (ii) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.
- (iii) Kontratuan ageri diren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, EEE/EVE baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatuz edota lanak gauzatzen jarraituz, berez edo egokitzen jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.

28 JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (TRSPKLren 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitzeke eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berriaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako foroak.



I. ERANSKINA
PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA LAN ORDUAK
II.

Izen-abizenak:
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:
Ordezkatzen duen enpresa:
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:
Enpresaren bulegoen helbidea:

Datu horiek Kontratatorako Oinarrizko Baldintzetan agertzen den eran frogatu ostean, hau adierazten dut:

1. 2016, 2017. eta 2018. urteko ekitaldietarako EEE/EVE taldearen barruan dauden sektore publikoaren erakundeen kontuen auditoriak egiteko zerbitzuak eta horiek egiteko Eusko Jaurlaritzak ezarritako arauen arabera, 5. eranskinean azaltzen den bezala, kontratatzeari begirako LEHIAKETAREN deialdia dela eta, haren berri emateko EEE/EVEren Kontratatzailearen Profilean argitaratutako iragarkia ezagutzen dut.
2. Baldintza Teknikoen Pleguak, Oinarrizko Baldintzenak eta gainerako dokumentazioa aztertu eta ezagutzen dut.
3. Kontratatorako Oinarrizko Baldintzen Pleguaren lehen klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak ere ezagutzen ditut.
4. Horiekin ados nago eta borondatez, bere osotasunean eta aldaketarik gabe onartzen ditut 2. eta 3. ataletan adierazten diren legezko eta arauzko dokumentu eta testuak.
5. Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen dut, gehieneko prezio hauen arabera: ... euro; gehi BEZari dagokion ... euro. Beraz, guztira ... euro (BEZik gabe). Kantitate hori sozietate eta urteko era honetan banatzen da:

SOZIETATEA	2016ko ekitaldia	2017ko ekitaldia	2018ko ekitaldia	GUZTIRA
EEE/EVE + Kontsolidatua	[...]	[...]	[...]	[...]
CADEM	[...]	[...]	[...]	[...]
SHESA	[...]	[...]	[...]	[...]
C.H. Harana-Kontrasta	[...]	[...]	[...]	[...]
BIMEP, SA	[...]	[...]	[...]	[...]
				[...]

6. Aipatutako kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen dut, urteko lan ordu hauen arabera: ...ordu, eta V. eranskinean azaltzen den epearen barruan.

2016ko aren (e)an
(Enpresaren izena/lizitatzailea)
Ahalordez



II. ERANSKINA
LIZITATZAILEAREN ARDURA-ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin
KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

.....

ADIERAZTEN DUT: Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen dudan merkataritza-sozietateak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Eraberritu edo Bateginaren 60. eta 61. artikuluetan araututako kontratatze debekurik. Halaber, indarrean dauden xedapenekin bat etorriz, egiaztatzen dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hori guztia egiaztatzen duten agiriak eta dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut kontratua formalizatu baino lehen, horren esleipenduna izango banaiz.

2016ko aren (e)an
(Enpresaren izena/lizitatzaila)
Ahalordez



III. ERANSKINA BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA) (Hala badagokio)

[...] bankuak, (aurrerantzean, “**Bankua**”) eta haren izenean eta ordezkartzan [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, “**Sozietatea**”), lehen eskarian eta era solidarioan, .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], [*Energiaren Euskal Erakundea*] aurrean (aurrerantzean, “**Onuraduna**”), .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, “**Bermatutako zenbatekoa**”), [*kontratuaren izena idatz*] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berriaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arrazoiak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontaktzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Bermatutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arrazoiak hauengatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikipenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berriaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin, 20[](e)ko []aren(e)an.

[Lekua eta eguna]

[Erakundearen izen soziala]

[Ahaldun(ar)en sinadura]



IV. ERANSKINA EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO AITORPENAREN EREDUA

Izen-abizenak:
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:
Ordezkatzen duen enpresa:
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:
Enpresaren bulegoen helbidea:
.....

Nire erantzukizunpean, adierazten dut:

Tokiko zergei buruz indarrean dagoen araudiaren eta, zehazki, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren araupenaren arabera, jarraian zerrendatzen diren epigrafeetan zerga horren matrikulan alta ematera behartuta dago enpresa, eta ez du bajarik hartu zerga horretan:

.....
.....
.....
.....
.....

2016ko aren (e)an
(Enpresaren izena/lizitatzaila)
Ahalordez



EVE | Ente Vasco
de la Energía

**V. ERANSKINA
XEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN ERAKUNDEEN
KONTUEN AUDITORIEI BURUZKO AKORDIOA**



**SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ, DIRECTOR DE LA SECRETARÍA
DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO**

CERTIFICO:

Que en el Acta correspondiente a la Sesión del Consejo de Gobierno celebrada el día 28 de junio de 2016, consta, entre otros, el siguiente Acuerdo:

Propuesta de Acuerdo en relación a la auditoría de cuentas de las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El Consejo de Gobierno aprobó con fecha 9 de julio de 2013 un Acuerdo en relación a la auditoría de cuentas de las entidades del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Dicho Acuerdo regulaba el procedimiento de nombramiento de Auditores de Cuentas hasta el año 2015. En consecuencia, al haber finalizado su vigencia, procede dictar instrucciones para efectuar los nuevos nombramientos

El texto refundido de la ley de Sociedades de Capital aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio (en adelante, LSC), regula las obligaciones en materia de Auditoría de Cuentas en el Capítulo IV del Título VII. Dicha regulación está también contemplada en la Ley 22/2015, de 20 de julio, de Auditoría de Cuentas.

Asimismo, la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco regula las obligaciones en materia de Auditoría de Cuentas en la Sección Quinta (artículo 33). Dicha regulación está contemplada, asimismo, en la Sección III del Capítulo II (artículo 23 y siguientes) del Decreto 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco.

En este sentido, parte del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en particular las Sociedades Públicas y las Fundaciones del Sector Público están sujetas a las citadas normas, de modo que se hace preciso adoptar determinadas decisiones encaminadas a su ordenado cumplimiento.

Desde otra perspectiva, no debe olvidarse que todo el sector público está sujeto a los controles contable y económico-financiero definidos en la Ley 14/1994, de 30 de junio, de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Por otra parte, el principio de transparencia exige hacer pública la información presupuestaria, financiera y de gestión de las entidades que conforman el Sector Público y que dicha información represente la imagen fiel de la situación de las mismas.

Es preciso, pues, buscar aquellos mecanismos que con un máximo de economía de medios permitan el cumplimiento de lo legalmente dispuesto a lo largo de las normas a que se ha hecho referencia en el presente preámbulo.

El presente Acuerdo va dirigido a aquellas entidades del sector público con obligación de someterse a auditoría de cuentas, distinguiendo aquéllas en las que el Consejo de



Gobierno se constituye en su Junta General de Accionistas de aquéllas otras en las que no se da esta circunstancia, con la finalidad de establecer el procedimiento necesario para dar cumplimiento al mandato del art. 264 de la LSC y el contenido y alcance de los correspondientes informes. Asimismo, se señalan los mecanismos para el ejercicio del control económico financiero de las entidades no sujetas a la obligación legal de auditoría de cuentas.

En su virtud, y a propuesta del Consejero de Hacienda y Finanzas, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ACUERDO

“Primero.- Las Sociedades Públicas con obligación legal de auditar sus cuentas anuales por resultarles de aplicación el artículo 263 de la LSC, y en las que el Consejo de Gobierno ejerza las funciones de Junta General en razón de que su capital corresponda íntegramente a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, deberán realizar en el plazo de tres meses como máximo, a partir de la adopción del presente Acuerdo, las siguientes actuaciones a efectos del nombramiento de auditores de cuentas para los ejercicios 2016, 2017 y 2018, en base a lo preceptuado en los artículos 264 y siguientes de la mencionada norma:

1.-Las Sociedades arriba mencionadas adjudicarán los correspondientes contratos de auditoría de acuerdo con el procedimiento de contratación que sea legalmente aplicable y con arreglo a las siguientes especificaciones, que se incluirán en los Pliegos o documentos que regulen el citado procedimiento y se recogerán expresamente como obligaciones contractuales del adjudicatario:

a) Los informes a emitir por los auditores de cuentas tendrán el contenido y alcance que se señalan en los Anexos de este Acuerdo. Dichos informes se emitirán, al menos, en euskera y castellano.

b) Los contratos comprenderán las auditorías de cuentas para cada uno de los tres ejercicios, a partir del actual 2016 y hasta el 2018.

c) Los auditores de cuentas estarán obligados a poner a disposición de la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Finanzas los papeles de trabajo de la auditoría y cuanta información les sea requerida por la misma para el adecuado ejercicio de su función de control económico-financiero.

d) Con carácter general, el plazo de ejecución de los trabajos de auditoría de cuentas no podrá sobrepasar los tres meses siguientes a la finalización del ejercicio correspondiente. En cualquier caso, los informes de auditoría deberán estar disponibles para que la Junta



General de cada sociedad pueda aprobar sus cuentas anuales en el plazo estipulado por la legislación mercantil.

2.- Las ofertas así recibidas se remitirán, junto a la copia de la facturación correspondiente a los trabajos de auditoría del ejercicio 2015, a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Finanzas la cual procederá a efectuar a las Sociedades Públicas las observaciones que procedan, en orden a la propuesta definitiva de nombramiento de auditor.

3.- Las Sociedades Públicas a que se alude en este Apartado Primero propondrán, a través del Departamento correspondiente, los auditores de cuentas seleccionados, a fin de que el Consejo de Gobierno, constituido en Junta General de cada Sociedad, adopte los Acuerdos a que hubiere lugar en orden al cumplimiento del art. 264 y siguientes de la LSC.

Segundo.- Los representantes de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de las demás entidades del sector público de la CAE en los órganos rectores de las Sociedades Públicas con obligación legal de auditar sus cuentas anuales en las que el Consejo de Gobierno no ejerza las funciones de Junta General, deberán, asimismo, propiciar la ejecución del procedimiento descrito en el Apartado anterior en el momento en que se plantee el cumplimiento del art. 264 de la LSC en las referidas Sociedades Públicas.

La misma obligación tendrán los citados representantes en los órganos rectores de las Fundaciones del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi cuando se plantee el cumplimiento de lo establecido en el art. 26 del Decreto 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.- Los Entes Públicos de Derecho Privado y el resto de las Sociedades Públicas y Fundaciones del Sector Público sin obligación legal de auditar sus cuentas anuales deberán, asimismo, aplicar el procedimiento descrito en el Apartado Primero para la contratación de los auditores de cuentas.

No obstante, la Oficina de Control Económico podrá acordar con los mismos la forma de ejercer su control económico-financiero pudiendo servirse tanto de medios propios como ajenos contratados al efecto.

Los informes a emitir serán, asimismo, los que se señalan en los Anexos de este Acuerdo.



Cuarto.- Notificar el contenido de los acuerdos anteriores a todos los Entes Públicos de Derecho Privado, Sociedades Públicas y Fundaciones del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi”.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, en Vitoria-Gasteiz, a 28 de junio de 2016, haciendo constar que el Acta donde figura el Acuerdo transcrito, será sometida a la aprobación del Consejo de Gobierno en su próxima reunión.

A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke extending to the right.

NIK, JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIOK, HERRI
ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURU ETA EUSKO
JAURLARITZAKO IDAZKARI NAIZEN ALDETIK,

EGIAZTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak, 2016ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

ERABAKIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE
PUBLIKOKO ERAKUNDEEN KONTU-IKUSKAPENARI BURUZKOA.

2013ko uztailaren 9an Gobernu Kontseiluak Akordio bat onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen kontu-ikuskaritzari buruz. Akordio horrek, kontu-ikuskeriak izendatzeko prozedura arautzen zuen 2015 urtera arte. Horrenbestez, haren indarraldia amaitu denez, izendapen berriak egiteko jarraibideak eman behar dira orain.

Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital Sozietateen Legearen (aurrerantzean KSL) testu bateginak arautzen ditu kontu-ikuskaritzaren arloko betebeharrak, VII. tituluko IV. kapituluan (263. artikulua eta hurrengoak). Erregulazio hori jasota dago, halaber, uztailaren 20ko 22/2015 Kontu Ikuskaritzari buruzko Legearen.

Era berean, ekainaren 2ko 9/2016 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoak, kontu-ikuskaritzaren arloko betebeharrak arautzen ditu, bosgarren atalean (33. artikulua). Erregulazio hori jasota dago, halaber, Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren II. kapituluko III. atalean (23. artikulua eta hurrengoak).

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zati bat, eta bereziki sozietate publikoak eta fundazio publikoak, aipatu arauen mende daude, eta beraz zenbait erabaki hartu behar dira, zuzen bete daitezten.

Beste ikuspegi batetik, ez da ahaztu behar sektore publiko osoa ekainaren 30eko 14/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoak, zehaztutako kontabilitate-kontrolaren eta kontrol ekonomiko-finantzarioaren mende dagoela.

Bestalde, gardentasun-printzipioak eskatzen du sektore publikoa osatzen duten erakundeen aurrekontu-, finantza eta kudeaketari buruzko informazioa argitaratzea eta informazio hori izatea horien egoeraren irudi leiala.

Hortaz, beharrezkoa da mekanismoak bilatzea, atariko honetan aipatu diren arauetan xedatutakoa betetzeko, ahalik eta baliabide gutxien erabiliz.

Akordio honen jomuga dira kontu-ikuskapena pasatzeko betebeharra ezartzen zaien sektore publikoko erakundeak; horien artean bereizten dira, alde batetik, Akziodunen Batzar Nagusia Gobernu Kontseiluak osatuta daukaten erakundeak, eta, bestetik, hori gertatzen ez den erakundeak, KSLren 264. artikuluan xedatutako mandatua eta dagozkion txostenen edukia eta irismena betetzeko behar den prozedura ezartze aldera. Bestalde, kontu-ikuskapena pasatzeko legezko betebeharra ez duten erakundeen kontrol ekonomiko-finantzarioa gauzatzeko mekanismoak adierazten dira.

Horri jarraiki, eta Ogasun eta Finantzetako sailburuak hala proposatuta, Gobernu Kontseiluak akordio hau hartu du:

AKORDIOA

“**Lehenengoa**.- KSLren 263. artikuluan aplikagarria zaiela-eta beren urteko kontuak ikuskatu beharra daukaten eta, kapitala osoki Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari dagokiola-eta Batzar Nagusiaren funtzioak Gobernu Kontseiluak betetzen dituen sozietate publikoek, gehienez ere hiru hilabeteko epean, akordio hau hartzen denetik aurrera, jarduera hauek egin beharko dituzte, 2016, 2017 eta 2018 ekitaldirako kontu-ikuskatzaileak izendatzearen, aipatu arauaren 264. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez:

- 1.-Goian aipatutako sozietateek dagozkien ikuskapen-kontratuak esleituko dituzte legez aplikagarria den kontratazio-prozedurari jarraiki, betiere bermatuz gutxienez hiru kontu-ikuskariren eskaintzak aintzat hartuko direla, segidan datozen zehaztapen hauei jarraiki, (zehaztapen horiek aipatu prozedura arautzen duten agiri edo dokumentuetan sartuko dira eta berariaz esleipendunaren kontratu-betebehar gisa jasoko dira):
 - a) Kontu-ikuskariak eman beharreko txostenek akordio honen eranskinetan adierazitako edukia eta irismena izango dute. Aipatutako txostenak idatziko dira, behintzat, euskaraz eta gastelaniaz.
 - b) Kontratuak hiru ekitaldietako bakoitzerako kontu-ikuskapenak barne hartuko dituzte, 2016ko urtetik 2018ra arte.

- c) Kontu-ikuskariak Ogasun eta Finantza Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren esku jarri beharko dituzte ikuskapenean erabilitako lan-paperak eta bulegoak, kontrol ekonomiko-finantzarioa betetze aldera, eskatzen dien informazio oro.
- d) Oro har, kontu-ikuskaritzako lanak burutzeko epea ezingo da dagokion ekitaldia amaitu eta hurrengo hiru hilabete baino luzeagoa izan. Edonolara ere, ikuskapen-txostenek eskuragarri egon beharko dute, sozietate bakoitzaren Batzar Nagusiak urteko kontuak onartu ahal dituzan merkataritzaren arloko legeriak ezarritako epean.

2.-Horrela jasotako eskaintzak, 2012ko ekitaldiko kontu-ikuskaritzako lanen fakturazioaren kopia batekin batera, Ogasun eta Finantza Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari bidaliko zaizkio, eta hark, dagozkion oharra egingo dizkie sozietate publikoei, kontu-ikuskaria izendatzeko behin betiko proposamenari begira.

3.-Lehen atal honetan hizpide diren sozietate publikoek proposatuko dituzte, dagokion sailaren bitartez, hautatuko kontu-ikuskariak, hartara, Gobernu Kontseiluak, sozietate bakoitzean Batzar Nagusi gisa eratu, dagozkion akordioak har dituzan, KSLren 264. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta EAeko sektore publikoko gainerako erakundeek Gobernu Kontseiluak Batzar Nagusiaren zereginak ez dituen eta beren urteko kontuak ikuskatu beharra daukaten sozietate publikoetako zuzendaritza-organoetan dituzten ordezkariak bermatu beharko dute, era berean, aurreko atalean azaldutako prozedura beteko dela, aipatu sozietate publikoetan KSLren 264. artikulua bete beharra planteatzen denean.

Betebehar bera izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioetako zuzendaritza-organoetan dauzkaten ordezkariak ere, ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzekoak, 26. artikuluan ezarritakoa bete beharra planteatzen denean.

Hirugarrena.- Halaber, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta urteko kontuak ikuskatu beharrik ez duten sektore publikoko gainerako sozietate publikoek eta fundazioek Lehengo Atalean deskribatutako prozedura gauzatu beharko dute, kontu-ikuskatzaileak kontratatuzko.

Hala ere, Ogasun eta Finantza Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak haiekin ados dezake ekonomia- eta finantza-kontrola gauzatzeko modua; horretarako baliatu ahal izango ditu baliabide propioak zein berariaz kontratatuko kanpokoak.

Eman beharreko txostenak akordio honen eranskinetan adierazitakoak izango dira.

Laugarrena.- Aurreko akordioen edukia Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko eta sektore publikoko fundazio guztiei jakinaraztea”.

ERABAKIAREN ERANSKINAK:

I. ERANSKINA.- EGIN BEHARREKO TXOSTENAK

Sektore publikoko erakunde bakoitzarentzat (zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, sozietate publikoak eta fundazioak), honako txosten hauek lortu beharko dira eta behar bezala izenpetuta egon beharko dute:

- a) Auditoretza.
- b) Barne Kontroleko Txostena.
- c) Aurrekontua betetzearen eta legezketasunaren inguruan adostutako prozeduren txostena.

Honako eduki hauek izango dituzte txostenek:

A) AUDITORETZA:

- Administratzaileek edo patronatukideek sinatutako urteko kontuei edo finantza egoera-orriei buruzko iritzia emango da. Halaber, kudeaketa-txostena erantsiko da.
- Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 257. artikulua urteko kontuak laburbilduta aurkezteko aukera ematen badu ere, ezin izango dituzte inola ere horrela aurkeztu. Era berean, lege-testu beraren 262. artikuluan xedatutakoaren arabera horretara derrigortuta ez badaude ere, sektore publikoko erakunde guztiek aurkeztu beharko dute kudeaketa-txostena.
- Honako talde hauentzat:
 - Energiaren Euskal Erakundea.

- Euskal Irrati Telebista.
- SPRI Taldea eta, hala badagokio, maila baxuagoko haren taldeak.

Enpresa bakoitzaren bananako txostenaz gainera, urteko kontu bateratuen auditoretza-txostenak aurkeztuko dira, Urteko Kontu Bateratuak Egiteko Arauak onartzen dituen irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuaren arabera.

B) BARNE-KONTROLEKO TXOSTENA

Honako informazio hau jasoko du:

- 1.- Aurkitutako hutsuneak.
- 2.- Ondorioak.
- 3.- Iradokizunak edo gomendioak.

C) AURREKONTUA BETETZEAREN ETA LEGEZKOTASUNAREN INGURUAN ADOSTUTAKO PROZEDUREN TXOSTENA

- Lortuko da Aurrekontua Betetzeari eta Legezkontasunari buruzko memoria, administrariak edo nagusiek izenpetuta (II. eranskina); honako hauek jasoko ditu:
 - a) Kapital- eta ustiapen-aurrekontuak gauzatzea, honakoak adierazita:
 - Hasierako aurrekontua.
 - Aldaketak.
 - Behin betiko aurrekontua.
 - Gauzatutakoa.
 - Desbiderapenak.
 - Desbiderapen garrantzitsuenen azterketa eta azalpena.
 - b) Izaera mugatzailea duten kontzeptuak.
 - c) Ekitaldirako programatutako helburuak zer neurritan bete diren.
 - d) Zuzendaritza-karguen ordainsariak.
 - e) Erakundeko langileak.
 - f) Etorkizuneko konpromisoak.

g) Hornitzaileei ordaintzeko epea

Aipatutako memoriari buruz egingo da Aurrekontua betetzearen eta legezkotasunaren inguruan adostutako prozeduren txostena, Akordio honen III. eranskinean jasotako ereduari jarraiki. Bertan, besteak beste, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

a) Aurrekontu-erregimena:

- Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bategina, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartutakoa:
 - * Aldaketen erregimena arautzen duen 97. artikuluari eta hurrengoei dagokienez.
 - * Aurrekontu-kontzeptu batzuen izaera mugatzailea arautzen duen 54.2. artikuluari dagokionez.

b) Lanak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea:

- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.
- 31/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Uraren, energiaren, garraioen eta posta zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzkoa.

c) Diru-laguntzen erregimena:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartuta, eta Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak aldatuta.

d) Ordainsarien erregimena:

- Zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekieen estatutu pertsonala arautzeko den otsailaren 23ko 130/1999 Dekretua.
- Goi-kargudunen Lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 4. artikulua.
- Pizgarriak jasotzeko, egoera zehatz bakoitzean ezarritako baldintzak betetzea: ezarritako kudeaketa-helburuei dagozkien emaitza-adierazleak ebaluatzea eta haztatzea.

Halaber, aipatutako txostenak helburuen betetzea, plantilla, etorkizuneko konpromisoak eta hornitzaileei ordaintzeko epeari buruzko prozedurak jasoko ditu.

II. ERANSKINA

AURREKONTUA BETETZEARI ETA LEGEZKOTASUNARI BURUZKO MEMORIA-20XX EKITALDIA

1.- Ustiapen- eta kapital-aurrekontuak, eta aurreikusitako helburuak

1.a) Ustiapen- eta kapital-aurrekontuen exekuzioa

**KAPITAL AURREKONTUA
PRESUPUESTO DE CAPITAL**

Euros

INBERTSIOAK INVERSIONES	AURREKONTUA PRESUPUESTO			EGINDA KOA REALIZA DO	ALDEA DIFERENCI A	%
	HASIER AKOA INICIAL	ALDAKETA MODIFICACI.	EGUNER ATUA ACTUAL			
I. USTIAPEN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXU NEGATIBOAK <i>FLUJOS NEGATIVOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE EXPLOTACIÓN</i>						
II. INBERTSIO UKIEZIN, MATERIAL, HIGIEZIN ETA BESTE BATZUEN GEHIKUNTZA <i>AUMENTO DE INVERSIONES INTANGIBLES, MATERIALES, INMOBILIARIAS Y OTRAS</i>						
1. IBILGETU UKIEZINA <i>INMOVILIZADO INTANGIBLE</i>						
2. IBILGETU MATERIALA <i>INMOVILIZADO MATERIAL</i>						
3. ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK <i>INVERSIONES INMOBILIARIAS</i>						
4. SALTZEKO DAUDEN AKTIBO EZ-KORRIENTEAK <i>ACTIVOS NO CORRIENTES MANTENIDOS PARA LA VENTA</i>						
III. FINANTZA-INBERTSIOEN GEHIKUNTZA ETA ONDARE-TRESNEN GUTXITZEA <i>AUMENTO DE INVERSIONES FINANCIERAS Y DISMINUCIÓN DE INSTRUMENTOS PATRIMONIO</i>						
1. FINANTZA-INBERTSIOAK TALDEKO ENPRESETAN ETA ELKARTUETAN <i>INVERSIONES FINANCIERAS EN EMPRESAS DEL GRUPO Y ASOCIADAS</i>						
2. BESTELAKO FINANTZA-INBERTSIOAK <i>OTRAS INVERSIONES FINANCIERAS</i>						
3. ONDARE-TRESNEN AMORTIZAZIOA <i>AMORTIZACIÓN DE INSTRUMENTOS DE PATRIMONIO</i>						
4. ONDARE-TRESNA PROPIOAK ESKURATZEA <i>ADQUISICIÓN DE INSTRUMENTOS DE PATRIMONIO PROPIO</i>						
5. DIBIDENDU-ORDAINKETAK <i>PAGOS POR DIVIDENDOS</i>						
IV. PASIBO FINANTZARIOKO TRESNEN GUTXITZEA (ITZULKETA ETA AMORTIZAZIOA) <i>DISMINUCIÓN DE INSTRUMENTOS PASIVO FINANCIERO (DEVOLUCIÓN Y AMORTIZACIÓN)</i>						
1. OBLIGAZIOAK ETA BESTELAKO BALORE NEGOZIAGARRIAK <i>OBLIGACIONES Y OTROS VALORES NEGOCIABLES</i>						
2. KREDITU-ERAKUNDEEKIKO ZORRAK <i>DEUDAS CON ENTIDADES DE CRÉDITO</i>						
3. TALDEKO ENPRESEKIKO ETA ELKARTUEKIKO ZORRAK <i>DEUDAS CON EMPRESAS DEL GRUPO Y ASOCIADAS</i>						
4. BESTELAKO ZORRAK <i>OTRAS DEUDAS</i>						
V. KANBIO-TASEN ALDAKETEN ERAGINA <i>EFFECTO DE LAS VARIACIONES DE LOS TIPOS DE CAMBIO</i>						
VI. ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA GARBIA <i>AUMENTO NETO DEL EFECTIVO O EQUIVALENTES</i>						
INBERTSIOAK GUZTIRA TOTAL INVERSIONES						

FINANTZAKETA FINANCIACION	AURREKONTUA PRESUPUESTO			EGINDA KOA REALIZA DO	ALDEA DIFERENCI A	%
	HASIER AKOA INICIAL	ALDAKETA MODIFICACI.	EGUNER ATUA ACTUAL			
I. USTIAPEN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXU POSITIBOAK <i>FLUJOS POSITIVOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE EXPLOTACIÓN</i>						
II. INBERTSIO UKIEZIN, MATERIAL, HIGIEZIN ETA BESTE BATZUEN GUTXITZEA <i>DISMINUCIÓN DE INVERSIONES INTANGIBLES, MATERIALES, INMOBILIARIAS Y OTRAS</i>						
1. IBILGETU UKIEZINA <i>INMOVILIZADO INTANGIBLE</i>						
2. IBILGETU MATERIALA <i>INMOVILIZADO MATERIAL</i>						
3. ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK <i>INVERSIONES INMOBILIARIAS</i>						
4. SALTZEKO DAUDEN AKTIBO EZ-KORRIENTEAK <i>ACTIVOS NO CORRIENTES MANTENIDOS PARA LA VENTA</i>						
III. JASOKO DIREN TRANSFERENTZIAK, DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK <i>TRANSFERENCIAS, SUBVENCIONES, DONACIONES Y LEGADOS A RECIBIR</i>						
IV. ONDARE-TRESNEN GEHIKUNTZA ETA FINANTZA-INBERTSIOEN GUTXITZEA <i>AUMENTO DE INSTRUMENTOS PATRIMONIO Y DISMINUCIÓN DE INVERSIONES FINANCIERAS</i>						
1. ONDARE-TRESNEN JAULKIPENA <i>EMISIÓN DE INSTRUMENTOS DE PATRIMONIO</i>						
2. ONDARE-TRESNA PROPIOAK BESTERENTZEA <i>ENAJENACIÓN DE INSTRUMENTOS DE PATRIMONIO PROPIO</i>						
3. FINANTZA-INBERTSIOAK TALDEKO ENPRESETAN ETA ELKARTUETAN <i>INVERSIONES FINANCIERAS EN EMPRESAS DEL GRUPO Y ASOCIADAS</i>						
4. BESTELAKO FINANTZA-INBERTSIOAK <i>OTRAS INVERSIONES FINANCIERAS</i>						
V. PASIBO FINANTZARIOKO TRESNEN GEHIKUNTZA <i>AUMENTO DE INSTRUMENTOS DE PASIVO FINANCIERO</i>						
1. OBLIGAZIOAK ETA BESTELAKO BALORE NEGOZIAGARRIAK <i>OBLIGACIONES Y OTROS VALORES NEGOCIABLES</i>						
2. KREDITU-ERAKUNDEEKIKO ZORRAK <i>DEUDAS CON ENTIDADES DE CRÉDITO</i>						
3. TALDEKO ENPRESEKIKO ETA ELKARTUEKIKO ZORRAK <i>DEUDAS CON EMPRESAS DEL GRUPO Y ASOCIADAS</i>						
4. BESTELAKO ZORRAK <i>OTRAS DEUDAS</i>						
VI. KANBIO-TASEN ALDAKETEN ERAGINA <i>EFECTO DE LAS VARIACIONES DE LOS TIPOS DE CAMBIO</i>						
VII. ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GUTXITZE GARBIA <i>DISMINUCIÓN NETA DEL EFECTIVO O EQUIVALENTES</i>						
FINANTZAKETA GUZTIRA TOTAL FINANCIACION						

USTIAPEN AURREKONTUA
PRESUPUESTO DE EXPLOTACION

Euros

GASTUAK GASTOS	AURREKONTUA PRESUPUESTO			EGINDA KOA REALIZA DO	ALDEA DIFERENCI A	%
	HASIER AKOA INICIAL	ALDAKETA MODIFICACI.	EGUNER ATUA ACTUAL			
I. PERTSONAL-GASTUAK GASTOS DE PERSONAL						
1. SOLDATAK, LANSARIAK ETA ANTZEKOAK <i>SUELDOS, SALARIOS Y ASIMILADOS</i>						
2. KARGA SOZIALAK ETA BESTE BATZUK <i>CARGAS SOCIALES Y OTROS</i>						
II. FUNTZIONAMENDU-GASTUAK GASTOS DE FUNCIONAMIENTO						
1. HORNIKUNTZAK <i>APROVISIONAMIENTOS</i>						
2. KANPOKO ZERBITZUAK <i>SERVICIOS EXTERIORES</i>						
3. TRIBUTUAK <i>TRIBUTOS</i>						
4. KUDEAKETA ARRUNTEKO BESTELAKO GASTUAK <i>OTROS GASTOS DE GESTIÓN CORRIENTE</i>						
III. GASTU FINANTZARIOAK GASTOS FINANCIEROS						
1. TALDEKO ENPRESEKIKO ETA ELKARTUEKIKO ZORRENAK <i>POR DEUDAS CON EMPRESAS DEL GRUPO Y ASOCIADAS</i>						
2. HIRUGARRENEKIKO ZORRENAK <i>POR DEUDAS CON TERCEROS</i>						
IV. ENTITATEAK EMANGO DITUEN DIRU-LAGUNTZAK ETA EGINGO DITUEN TRANSFERENTZIAK SUBVENCIONES A CONCEDER Y TRANSFERENCIAS A REALIZAR POR LA ENTIDAD						
V. KOBRATZEKO KONTUEN GEHIKETA ETA ORDAINTEZKO KONTUEN GUTXITZE GARBIAK AUMENTO CUENTAS A COBRAR Y DISMINUCIÓN CUENTAS A PAGAR NETOS						
VI. USTIAPEN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXU POSITIBOAK FLUJOS POSITIVOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE EXPLOTACIÓN						
GASTUAK GUZTIRA TOTAL GASTOS						

DIRU-SARRERAK INGRESOS	AURREKONTUA PRESUPUESTO			EGINDA KOA REALIZA DO	ALDEA DIFERENCI A	%
	HASIER AKOA INICIAL	ALDAKETA MODIFICACI.	EGUNER ATUA ACTUAL			
I. NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA <i>IMPORTE NETO DE LA CIFRA DE NEGOCIOS</i>						
1. SALMENTAK <i>VENTAS</i>						
2. ZERBITZU-EMATEAK <i>PRESTACIONES DE SERVICIOS</i>						
II. USTIAPENEO BESTELAKO DIRU-SARRERAK <i>OTROS INGRESOS DE EXPLOTACIÓN</i>						
III. ZERGA BIDEZKO DIRU-SARRERAK <i>INGRESOS TRIBUTARIOS</i>						
1. ZEHARKAKO ZERGAK <i>IMPUESTOS INDIRECTOS</i>						
2. TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE BATZUK <i>TASAS, PRECIOS PÚBLICOS Y OTROS</i>						
IV. USTIAPENEO TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK <i>TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE EXPLOTACIÓN</i>						
V. SARRERA FINANTZARIOAK <i>INGRESOS FINANCIEROS</i>						
1. ONDARE-TRESNETAKO PARTAIDETZENAK <i>DE PARTICIPACIONES EN INSTRUMENTOS DE PATRIMONIO</i>						
2. BALORE NEGOZIAGARRI ETA BESTELAKO FINANTZA-TRESNENAK <i>DE VALORES NEGOCIABLES Y OTROS INSTRUMENTOS FINANCIEROS</i>						
VI. ORDAINTEZKO KONTUEN GEHIKETA ETA KOBRATZEKO KONTUEN GUTXITZE GARBIAK <i>AUMENTO CUENTAS A PAGAR Y DISMINUCIÓN CUENTAS A COBRAR NETOS</i>						
VII. USTIAPEN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXU NEGATIBOAK <i>FLUJOS NEGATIVOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE EXPLOTACIÓN</i>						
DIRU-SARRERAK GUZTIRA <i>TOTAL INGRESOS</i>						

-Kapital- eta ustiapen-aurrekontuaren likidazio-taula hauek G67 aplikaziotik eskuratuko dira, Auditoretza Jarraipena fasetik, Txostenak menuetik: "Kapital-aurrekontua, Aldaketa eta egindakoa..." eta "Ustiapen-aurrekontua, Aldaketa eta egindakoa...". Txostenak aurreko taulen egitura berberaz atera daitezten, G67 aplikazioan (Aplikazioa menua, Lehentasunak...) honako 3 tick hauek hautatu behar dira: Bi hizkuntzatan (laburtuak), Sekzio xehaketarik gabe eta Epigrafeak soilik.

Taulek ez dute zenbatekorik gabeko errenkadarik izango.

Gogoan izan behar da zeinen garrantzitsua den ustiapen- eta kapital-datuak behar bezala sartzea G67 aplikazioko auditoretza jarraipenean –20XX ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak Likidatzeko Zirkularra agiriaren 2.a) atalean adierazitako eskakizunak betez sartu behar dira–, kapital- eta ustiapen-likidazioak behar bezala eskuratzeko G67 aplikazioaren bidez.

-%: Eguneratutako aurrekontuaren gain egindakoa. Taulei buruzko oharretan, eguneratutako zenbatekoaren desbiderapenak, %5etik gorakoak, azalduko dira laburki, betiere, desbiderapen horiek 30.000 eurotik gorakoak badira.

Garrantzitsua da kapital-aurrekontuaren eta ustiapen-aurrekontuaren likidazio-taulak txostenean **bakoitza orrialde baten goiburuan dagoela** sartzea, 20XX(e)ko ekitaldiko kontu nagusian errazago sartzeko.

1.b) Izaera mugaduneko kontzeptuak

1.b) Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onetsi zuen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 54.2 artikuluari dagokionez —aurrekontu-kontzeptu batzuen izaera mugaduna arautzen du—, honakoa adierazi beharko da:

- Finantza-inbertsioek, langile-gastuek, besteren baliabideek, transferentzien eta eman beharreko diru-laguntza arrunten eta kapitaleko diru-laguntzen baturak eta ibilgetu material eta ukiezinean egindako inbertsioen baturak ez duten onetsitako aurrekontu eguneratua gainditzen.

1.c) Ekitaldirako programatutako helburuen betetze-maila

Aurrekontu Orokorretan erakundearentzat aurreikusi diren helburuak eta magnitudeak adierazi, baita ateratako magnitudeak ere; hala bada, desbideraketa garrantzikoenei buruzko iruzkin laburra sartu, hurrengo taularen arabera:

PROGRAMATURIKO HELBURUAK ETA ZENBATESPENA		PROGRAMATURIKO HELBURUAK ZENBATERAINO BETE DIREN	
Helburua Ekintza Adierazlea	Aurreikusitako magnitudea	Eskuratutako magnitudea	Desbideratzeei buruzko iruzkinak

Programaturiko helburuak eta zenbatespena. Dagokion taulako informazioa sartuko da, erakundearen memorian baitago jasota. Legebiltzarrak ekitaldirako onartu dituen Aurrekontu Orokorren barruan dago memoria.

Programaturiko helburuak zenbateraino bete diren. Oro har, taula horren helburua da labur adieraztea nola bete den aurreikusitako helburuetako bakoitza, baita zer aldaketa izan duen ere, ekitaldiaren itxierako aurrekontu-egikaritzearekin edo exekuziorekin lotuta, hau da, programatutako helburuen eraginkortasuna neurtzea. Taula horiek Aurrekontu Orokorren likidazioaren barruan daude (likidazioaren dokumentua erakunde publiko zein pribatuei banatzen zaie eta argitaratu egiten da, eta Ogasun eta Finantza Sailaren web gunean ipiniko da) eta kontabilitate-informazioa osatzen dute. Beraz, nahiko argiak izateaz gain, bat etorriko dira erakunde, sozietate edo fundazio publikoaren aurrekontuaren egikaritzea erakusten duten zenbatekoekin.

1.a) ataleko aurrekontu-likidazioaren taulak bezala, garrantzitsua da aurreko taula Memorian **orrialdearen goiburuan** txertatzea.

2.- Langileria

2.a) Estatutu pertsonala otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuz araututa duten zuzendaritza-taldekideen ordainsariak

Osatu otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuaren babespean dauden zuzendaritza-taldekideen kontzeptu guztiengatiko ordainsarien taula, hurrengo orrialdeko formatuari jarraituz xehatuta.

Horri dagokionez, hauxe esan beharra dago:

- Ekitaldian pertsona bat baino gehiago aritzen bada zuzendaritza-postu batean, lerro bat erabili beharko da pertsona bakoitzeko.
- Ekitaldian pertsona batek zuzendaritza-postu bat baino gehiago bete badu, haren ordainsariak bete dituen kargu adina lerrotan xehatu beharko dira.

Bestalde, gogorarazi behar da, indarrean dagoen araudiari jarraituz hauek direla zuzendari horien **ordainsari-mugak antzintasuna eta kalte-ordainak kontuan hartu gabe:**

- ordainsari finakoak eta aldiak ezin izango dira Eusko Jaurlaritzako sailburuorde-karguak dagozkionak baino handiagoak izan.
- kontzeptu guztiak direla ~~eta~~ **bermatu gabeko kopuruko pizgarriak barne— jasotako urteko soldataren zenbatekoak ezin izango du inoiz gainditu Eusko Jaurlaritzako sailburu bati dagokion urteko lansari osoa.**

2012ko abenduko aparteko paga berreskuratzeko ordainketa bada [5], uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2.1 artikulua ezarritakoari jarraituz sektore publikoko langileei kendutakoa, zenbateko hori ez da kontuan hartuko goian ezarritako muga horietarako.

Zuzendariaren ordainsarietako muga horietakoren bat gainditzen badute, arrazoia adierazi beharko da taularen oinean jarritako ohar baten bidez.

Urtebetetik beherako kontratua bada, muga horiek taulako urtekotutako ordainsariekin alderatuko dira, eta gehiegi jasotakoa honela kalkulatu da: kontratuaren iraupenari hainbanatutako mugaren eta benetan jasotako ordainsarien arteko kenketa eginda.

2.b) Erakundearen plantilla

Hauxe adierazi behar da: 20XX/12/31n aurreikusitako plantillari buruzko informazioa, kategoria profesional bakoitza aintzat hartuta, ekitaldirako onartu diren EAEko aurrekontuekin bat etorrita; eta ekitaldiaren itxiera edo amaierako benetako plantilla, guztira, sozietatearen urteko kontuetan sartutako informazioaren arabera. Labor-labor azaldu dauden ezberdintasunak edo aldeak. Formatu hau erabili:

TALDEA	KATEGORIA	AURREKONTUA			BENET.	ALDEA	%
		HASIERAN	ALDAKETA	ORAINGOA			
-	PLANTILLA ESTRUKTURALA GOI-KARGUAK ETA ZUZENDARIAK -Zuzendariak (130-99 Dekretua) -Bestelako zuzendariak						
A	FUNTZIONARIO ETA ESTATUTARIOEN LANPOSTUAK -Goi-mailako Teknikariak						
B	-Erdi-mailako Teknikariak						
C	-Administrariak						
D	-Administrari Laguntzaileak						
E	-Operarioak eta Subaltermoak						
A	LAN-KONTRATADUNEN LANPOSTUAK -Goi-mailako Teknikariak						
B	-Erdi-mailako Teknikariak						
C	-Administrariak						
D	-Administrari Laguntzaileak						
E	-Operarioak eta Subaltermoak						
A	BEHIN-BEHINEKO KONTRATAZIOAK PLANTILLA ESTRUKTURALAREN ORDEZKAPENAK -Goi-mailako Teknikariak						
B	-Erdi-mailako Teknikariak						
C	-Administrariak						
D	-Administrari Laguntzaileak						
E	-Operarioak eta Subaltermoak						
A	ZEREGIN-PILAKETA, PROIEKTUAK... -Goi-mailako Teknikariak						
B	-Erdi-mailako Teknikariak						
C	-Administrariak						
D	-Administrari Laguntzaileak						
E	-Operarioak eta Subaltermoak						
PLANTILLA, GUZTIRA							

-Hasierako aurrekontua. Hasierako aurrekontuaren zutabeko zifrak G67 aplikaziotik ateratzen dira, Aurrekontu Fasea / Aurrekontua, Txostenen menua: "Txosten osagarriak..., Langileak, Kategoriak, fasea guztira".

-Eguneratutako aurrekontua / Benetako/ Aldea. Hiru zutabe hauetako zifrak G67 aplikaziotik ateratzen dira, Ikuskatutako Segimendua fasean, Txostenen menuan: "Txosten osagarriak..., Pertsonal, E-detalle kategorias, E-divergencia presupuesto-real".

Benetakoaren zutabearen guztirakoa bat etorriko da 20XX urtealdiko urteko kontuetan dagoen informazioarekin.

-Aurrekontuaren aldaketak. Zutabe honetako zifrak beste biren diferentziak dira: Eguneratutako aurrekontua eta Hasierako aurrekontua.

3.- Geroko konpromisoak

Geroko konpromisoak osatu eta sartu hurrengo taularen formatuan, indarreko arauen arabera (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 30. eta 55. artikulua; eta EAEko 20XX(e)ko Aurrekontu Orokorrak egiteko Arau Teknikoak). Guztirako zenbatekoa bat etorriko da sozietatearen urteko kontuetan konpromisoei buruz ageri den datuarekin.

	GEROKO KONPROMISOEN URTE ANITZEKO BANAKETA				
	<u>XX</u> <u>urtea+1</u>	<u>XX</u> <u>urtea+2</u>	<u>XX</u> <u>urtea+3</u>	<u>XX+4 urtea</u> <u>eta</u> <u>hurrengoak</u>	<u>GUZTIRA</u>
Hasierako kreditua					
Aurrekontu-aldaketa					
Kreditu eguneratua					
<i>Konprometitua</i> <i>20XX/12/31n</i>					
<i>Aldea</i>					

Baldin eta konprometitutako kredituak 20XX/12/31n eguneratutako kreditua gainditzen badu, zenbateko hori zergatik gainditu den azaldu behar da, eta, kontuan hartu behar da, halaber, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 97.3. artikulua xedatzen duen moduan, konpromiso berriak onartuta edo baimendutakoen zenbatekoa handiagotuta gerorako konpromisoen egoera handiagotu ahal izateko, horren gaineko akordioa onartu behar duela Gobernu Kontseiluak, aurrekontuen alorrean eskumena duen sailaren proposamenari erantzunez –era berean, hala badagokio, EAEko sektore publikoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoez, sozietate publikoez eta fundazioez arduratzen diren organoek ere onartu behar dute akordio hori–. Nolanahi ere, erakunde guztientzat hasieran baimendutako zenbatekoen guztizkoaren % 15ean handiagotu ahal izango da gehienez, eta, hiru hilean behin, baimen horien berri eman beharko zaio Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari.

4.- Hornitzaileei ordaintzeko epeak

Bete ondorengo taula, informazio hau jasotze aldera: 20XX ekitaldian hornitzaileei egindako ordaintzen gainekoa, eta 20XX/12/31n ordaindu gabe zeuden saldoei buruzkoa.

INFORMAZIO METATUA, HORNITZAILEEI 201X EKITALDIAN EGINDAKO ORDAINKETEN GAINEKOA, ETA 201X/12/31N ORDAINDU GABE ZEUDEN SALDOEI BURUZKOA								
Ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileak (A)			Ibilgetuko ondasun-hornitzaileak (B)			Hornitzaileak, guztira		
Ordaintza / eragiketa kopurua	Zenbatekoa (Eurotan)	Ordaintzeko batez besteko aldi haztatua (D)	Ordaintza / eragiketa kopurua	Zenbatekoa (Eurotan)	Ordaintzeko batez besteko aldi haztatua (D)	Ordaintza / eragiketa kopurua	Zenbatekoa (Eurotan)	Ordaintzeko batez besteko aldi haztatua (D)
EGINDAKO ORDAINKETAK								
Hornitzaileei ordaintza-eparen (C) BARRUAN ORDAINDUTAKOAK,								
Eusko Jauriaritzak erabakitako gehieneko epeaz ari gara								
30 egun arte								
Hornitzaileei epe barruan ordaindutakoak, guztira								
Hornitzaileei ordaintza-epetik (C) KANPO ORDAINDUTAKOAK,								
Eusko Jauriaritzak erabakitako gehieneko epeaz ari gara								
30 egun baino gehiago eta 60 egun arte								
60 egun baino gehiago								
Hornitzaileei epeaz kanpo ordaindutakoak, guztira								
Hornitzaileei ekitaldian ORDAINDUTAKOAK, guztira								
ORDAINDU GABEKO SALDOAK								
Hornitzaileei ORDAINDU GABEKO SALDOA, ekitaldi-itxieran ordaintza-eparen (C) BARRUAN dagoena. Eusko Jauriaritzak erabakitako gehieneko epeaz ari gara								
30 egun arte								
Hornitzaileei ordaindu gabekoak, epe barrukoak, guztira								
Hornitzaileei ORDAINDU GABEKO SALDOA, ekitaldi-itxieran ordaintza-epetik (C) KANPO dagoena. Eusko Jauriaritzak erabakitako gehieneko epeaz ari gara								
30 egun baino gehiago eta 60 egun arte								
60 egun baino gehiago								
Hornitzaileei ordaindu gabekoak, epe kanpokoak, guztira								
Ekitaldiaren ITXIERAN hornitzaileei ORDAINDU GABE zeudenak, guztira								
BERANDUTZAKO INTERESAK, ordaintza-epaiek ez betetzeagatik ordainduak								

- A) ONDASUN- ETA ZERBITZU-HORNITZAILEAK: ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileekiko zorrak direla eta, balantzearen pasibo korrientean sartutako hartzekodun komertzialak

Informazio hori egiten duen erakundea kontabilitate nazionalaren barruko administrazio publikoa bada, mota bereko administrazioekin dauden ordaintza-obligazioak ez dira sartuko.

- B) IBILGETUAREN HORNITZAILEAK: kontabilitate-planaren 2. multzoan definitutako ondasunen hornitzaileak.

Informazio hori egiten duen erakundea kontabilitate nazionalaren barruko administrazio publikoa bada, mota bereko administrazioekin dauden ordaintza-obligazioak ez dira sartuko.

- C) ORDAINKETA-EPEA: zenbat egun igaro diren faktura administrazio-erregistroan sartu zen datatik (fakturen kontabilitate-erregistroan edo antzeko sistemaren batean adierazitakoa), edo obraren hileko ziurtagiria onartu zen datatik, hala badagokio, benetan ordaindu zen data arte (ekitaldiaren amaieran hornitzaileei ordaintzeko dauden saldoei buruz jaso behar den informazioari dagokionez, erreferentzia moduan hartuko den «ordaintza-data» abenduaren 31 izango da). Administrazio-erregistroa edukitzea nahitaezkoa ez bada, faktura jaso zen eguna hartuko da kontuan.

- D) ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPE HAZTATUA: zatidura honen emaitza: zenbakitzailean, ekitaldian hornitzaileei egindako ordaintza bakoitzaren (edo 20XX/12/31n ordaindu gabe zeuden saldoak) eta horren ordaintza-eparen arteko biderkaduren batura; izendatzailean, ekitaldian egindako ordaintzen zenbateko osoa (edo 20XX/12/31n ordaindu gabe zeuden saldoena).

3/2004 Legearen 4.3. artikuluari jarraikiz Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean jasotako ondorioetarako administrazio publikotzat jotzen ez diren erakundeek, ez zaienez aplikagarri testu bateginaren 216.4. artikuluan xedatutakoa, 60 egun naturaleko epea dute haien zorrak ordaintzeko (betiere, alderdien artean akordioa badago); hala ere, honakoak zergatik gertatu diren azaldu beharko da laburki:

-20XX ekitaldian zehar, zergatik ordaindu zaien hornitzaileei 30 egunetik gorako epean (Eusko Jaurkitzak ezarri zuen epe hori 2011ko apirilaren 12ko Erabakian).

-Ekitaldiaren itxieran, 20XX/12/31n, zergatik dauden hornitzaileei ordaindu gabeko saldoak, horrelakoetarako ezarritako 30 eguneko gehienezko epetik kanpo (Eusko Jaurkitzak ezarri zuen epe hori 2011ko apirilaren 12ko Erabakian).

(Administratzaile guztien sinadurak: Kide guztiek sinatuko dute, izena eta bi abizen jarrita, eta zer erakunderen ordezkartzan diharduten adierazita. Sinatu ez badute, beren-beregi adieraziko da "*absente*" edo sinatzeari uko egitearen arrazoa.)

III. ERANSKINA

AURREKONTUA BETETZEARI ETA LEGEZKOTASUNARI BURUZKO ADOSTUTAKO PROZEDUREN TXOSTENA

Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Sozietateak / Enteak / Fundazioak aginduta

Sektore publikoko XYZ, S.A.-ri / Zuzenbide pribatuko ente publikoari/Fundazioari (aurrerantzean Sozietatea/ Entea/Fundazioa) aplikatu beharreko 20XX(e)ko ekitaldiko aurrekontua betetzeari eta legezkontasunari buruz zuekin adostutako prozedurak egin ditugu (jarraian adierazi dira). Horien norainokoa eta edukia Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak egindako 20XX(e)ko xxxxxxaren xx(e)ko YY/20XX Zirkularrean (Zirkularra) dago aurreikusita. Gure lana egiteko, Espainian oro har onartuta dauden eta adostutako prozeduren aginduei aplikatu behar zaizkien arau profesionaleri jarraitu diegu. Horrelako lanetan txostenaren irakurleak ateratzen ditu bere ondorioak, jakinarazten zaizkion aurkikuntza objektiboak kontuan hartuta. Aurkikuntza horiek zuek definitutako prozedura zehatzak aplikatzetik eratorri dira, adierazitako zirkularrean aipatzen den sozietateari/enteari/fundazioari aplikatu beharreko araudiarekin lotutako hainbat alderdi betetzeari buruzko ebaluazioa egin ahal izan dezazuen. Halaber, txostenaren hartzaileak izango du erdietsi nahi diren helburuak lortzeko egin diren prozeduren nahikotasunari buruzko ardura. Beraz, guk ez dugu inongo erantzukizunik izango aplikatutako prozeduren nahikotasunari buruz.

Horren guztiaren arabera, honako hauek izan dira aurrekontua betetzeari eta legezkontasunari buruzko memoria (memoria) dela-eta 20XX(e)ko abenduaren 31n amaitu zen ekitaldirako aplikatutako prozedurak (sozietateko/enteko/fundazioko administratzaileek prestatu eta sinatuta):

1. Aurrekontu-araubidea arautzen duten arauen betetze-mailari dagokionez (ustiapen- eta kapital-aurrekontuak), eta aurreikusitako helburuak bete izanari dagokionez, honakoa egiaztatzen dugu:
 - 1.1. Kapital- eta ustiapen-aurrekontuei buruz erantsi den memorian azaldutako informazioa Zirkularren II. eranskinean ezarritako formatuan azaldu da.
 - 1.2. Aurreko 1.1 paragrafoan aipatu diren kapital- eta ustiapen-aurrekontuei buruz "Hasierako aurrekontua" izeneko zutabean azaltzen diren zenbatekoak bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) aurrekontuetan hasieran onetsi zirenekin. Halaber, "Eguneratutako aurrekontua" zutabeko zenbatekoak aurrekontuak aldatzeko bidezko araubidearen bitartez justifikatu dira, betiere maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onetsi zuen Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategineko (testu bategina) 97. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.
 - 1.3. "Egindakoa" zutabean agertzen diren zenbatekoak, kapital- eta ustiapen-aurrekontuei dagozkienak (aurreko 1.1. puntuan aipatzen dira), Zirkularren 2.a) puntuan zehaztutako prozedurak aplikatuz eskuratu direla eta bat datozela, hala badagokio, sozietateari/erakundeari/fundazioari ikuskatutako urteko kontuetan jasotako zenbatekoekin.
 - 1.4. Memoriak, era berean, aurreko 1.1 paragrafoan aipatu diren kapital- eta ustiapen-aurrekontuei buruz "Eguneratutakoa" eta "Egindakoa" zutabeetako zenbatekoen artean dauden desbideratzeak azaltzen ditu, baldin eta "Aldea" zutabean azaldutako zenbatekoetan

eguneratutako aurrekontu-zenbatekoaren % 5 baino gehiagoko desbideratzeak azaltzen badira, betiere desbideratze horiek 30.000 eurotik gora jotzen badute.

- 1.5. Testu bateginaren 54.2 artikulua araberaren mugaduna duten kontzeptuek (finantza-inbertsioek, langile-gastuek, besteren baliabideek, transferentzien eta eman beharreko dirulaguntza arruntak eta kapitaleko dirulaguntzen baturak eta ibilgetu material eta ukiezinean egindako inbertsioen baturak) ez dute onetsitako aurrekontu eguneratua gainditzen.
 - 1.6. 20XX ekitaldiko aurrekontu-likidazioa testu bateratuaren 21. artikulua ezarritakoaren arabera egin da (ustiapeneko dirulaguntzak itzultzea, sozietateak/enteak/fundazioak mozkinik edo irabazirik ateraz gero).
 - 1.7. Memoriak, Zirkularreko II. eranskineko 1.c) puntuan azaldutako formatuari jarraituz, honakoak azaltzen ditu: aurrekontuetan aurreikusitako helburuak, aurrekontuan sartutako magnitudeak eta eskuratutako magnitudeak, eta desbideratze guztien azalpena.
2. Kontratazio-alorreko legezotasuna betetzeari dagokionez, hauek begiratu ditugu: azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (aurrerantzean SPKLTB), eta urriaren 30eko 31/2007 Legea, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzkoa. Honako prozedura hauek egin ditugu:
 - 2.1. Egiaztatu ea erakundeak SPKLTBk horrelako botere esleitzaileri eskatzen dizkien betekizun orokor hauek betetzen dituen:
 - Kontratatzailearen profila, Internet bidez hedatutakoa eta irisgarria; kontratatzailearen profilerako lasterbidea edo zuzeneko sarbidea izatea sektore publikoko sozietateak / enteak / fundazioak mantentzen duen web gune instituzionalean; eta Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman sartzea (SPKLTBren 53. artikulua).
 - Erregulazio harmonizatuko ez besteko kontratuak esleituz gero, kontratazioarako barne-jarraitzaileak izatea, aholkulari juridiko batek horiei buruzko txostena egin izana, Administrazio Kontseiluak formalki onetsi izana eta kontratatzailearen profilean eskuragarri izatea (SPKLTBren 191. artikulua).
 - 2.2. ***A EGOERA: (Egoera hau sozietateei/enteei/fundazioei aplikatuko zaie baldin eta sektore publikoko kontratazioari buruzko barne-prozeduren eskuliburuak badute, eta eskuliburuak gutxienez B egoerako 2.2.1 ataletik 2.2.5 atalera bitartean garatutako baldintzak betetzen baditu)***

20XX(e)ko ekitaldian esleitutako kontratuen laburpen-zerrendatik, sozietateak/enteak/fundazioak emango baitu, eta sozietateak/enteak/fundazioak egindako kontratazio-modalitate bakoitzerako (obra-, hornikuntza- eta zerbitzu-kontratuak), hautatu balio zenbatetsi handiena duten hiru kontratuak (SPKLTBren 88.1 artikuluan definitutakoaren arabera) eta egin honako egiaztapen hauek:

(Azaldu sozietate/ente/fundazio horiei aplikatutako prozedura zehatzen zerrenda eta deskribapena. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak onetsi ditu prozedura horiek eta dagokion agindu-gutunean ageri dira)

Jarraian zehazten dira aukeratutako espedienteak:

Espediente	Xedea	Esleitura ko zenbatek oa	Esleipenare n data

B EGOERA: (Egoera hau sozietateei/enteei/fundazioei aplikatuko zaie baldin eta sektore publikoko kontratazioari buruzko barne-prozeduren eskulibururik ez badute, edo eskuliburua izanik ere, hurrengo 2.2.1 ataletik 2.2.5 atalera bitartean garatutako gutxieneko baldintzak jasotzen ez baditu)

20XX(e)ko ekitaldian esleitutako kontratuen laburpen-zerrendatik, sozietateak/enteak/fundazioak emango baitu, eta sozietateak/enteak/fundazioak egindako kontratazio-modalitate bakoitzerako (obra-, hornikuntza- eta zerbitzu-kontratuak), hautatu balio zenbatetsi handiena duten hiru kontratuak (SPKLTBren 88.1 artikuluan definitutakoaren arabera) eta egin honako egiaztapen hauek: Jarraian zehazten dira aukeratutako espedienteak:

Espediente	Xedea	Esleitura ko zenbatek oa	Esleipenare n data

2.2.1. Kontratua prestatzeari dagokionez (kontratazio-prozedura hasten denetik lizitazioa hasi arteko jarduerak), honakoak egiaztatu:

- kontratuaren objektua deskribatzen duen agindu teknikoaren agiria dagoela.
- kontratuaren esleipenarekin bete nahi diren beharrianak azaltzen direla espedientearen.
- espedientearen dokumentu bidez jasota dagoela kontratuak lizitazio-eguna baino lehen finantzaketa nahikoa duela (kudeatzailearen beren-beregizko ziurtagiria, kontratatu beharreko zenbatekoa aurrekontuetan azaltzen dela egiaztatzen duena).
- klausulen baldintza-agiriak aldeko txosten juridikoa duela.

- espedientean kaudimen-irizpideak ezartzen zaizkiela lizitatzaleei (baita horiek egiaztatzeko dokumentu-erreferentziak ere), edo sailkapena ezartzen dela kaudimen-baldintza gisa. Erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan, SPKLTBn baimendutako agiriak baino ez dira eskatuko (SPKLTBren 75. artikulutik 79.era bitartekoak).
- kontratua esleitzeko irizpideak eta esleipena ebazteko organo eskuduna ezartzen direla espedientean.
- esleipen-prozedura hautatzeari buruzko beren-beregizko justifikazioa azaltzen dela kontratazio-espedientean. Bereziki, lehia salbuetsita duten prozedura negoziatuetan, kontratuaren objektua gauza dezakeen hornitzaile bakarra dagoela dioen beren-beregizko adierazpena dagoela.

2.2.2. Lizitazio-prozedurari dagokionez, honakoak egiaztatu:

- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratu dela, hala badagokio SPKLTBn eta sozietatearen/entearren/fundazioaren kontrataziorako barne-jarraibideetan azaldutakoaren arabera (ikusi 2.1 atala).
- gutxienez hiru eskaintza eskatu direla egiaztatzeko agiriak daudela aurretiko publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetan, eta, bestela, eskaintza horiek eskatu ez izanaren arrazoiak beren-beregi justifikatzen dituen agiria dagoela (SPKLTBren 109. artikulua).
- eskaintzak aurkezteko epeak bat datozela SPKLTBn eta baldintza-agirian ezarritakoarekin.
- aurretiaz ezarritako esleipen-irizpideen arabera puntu gehien eskuratu duen eskaintzari egin zaiola esleipena, eta irizpide horien araberako esleipena justifikatzen duten arrazoiak azaltzeko idazkia dagoela (ikusi 2.2.1 atala).

2.2.3. Esleipendunaren kontratatze gaitasunari dagokionez, honakoak egiaztatu:

- Kontratazio Erregistroaren ziurtagiria edo adjudikaziodunaren beren-beregizko adierazpena dagoela, SPKLTBren 60. artikuluan azaldutakoaren arabera kontratatze gaitasuna eragozten duten inguruabarretako bat ere betetzen ez duela adieraziz.
- kaudimena aurretiaz ezarritakoaren arabera dokumentatu dela (ikusi 2.2.1 atala).

2.2.4. Organo eskudunaren esleipen-ebazpena dagoela egiaztatu, baita kontratua formalizatu dela eta kontratuaren agiriak gutxienez SPKLTBren 26. artikuluan ezarritako edukia duela ere.

2.2.5. Kontratua gauzatzeari dagokionez, honakoak egiaztatu:

- prestazioen inguruko jasotze edo adostasun formala dagoela, kontratuan ezarritakoaren arabera. Horrelakorik ezean, faktura sinatu dela, onespeneraren adierazgarri.
- Kontratu-aldaketak dokumentu bidez justifikatuta daudela, sozietateak/enteak/fundazioak hasierako kontratuaren objektuan aldaketaren bat egon dela jakinarazi digun kasuetan.

(Ekitaldian ez bada kontraturik lizitatu edo esleitu, B egoerako atal guztiak kenduko dira txostenetik, eta hurrengo lerrokada sartuko da: "Sozietateak/enteak/fundazioak ez du kontraturik lizitatu ez esleitu ekitaldian, eta, beraz, ez da inongo kontratazio-prozedurarik gauzatu".)

3. Diru-laguntzen araubidea betetzeari dagokionez, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak (Legea) araututakoaren arabera —azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onetsi zuen, eta Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak aldatu—, sektore publikoko erakundeen diru-laguntzen jardura kontuan hartuta, honakoak izan dira egindako prozedurak:

- 3.1. **A EGOERA:** *(Egoera hau sozietateei/enteei/fundazioei aplikatuko zaie baldin eta diru-laguntzak emateko alorrerako barne-prozeduren eskuliburua badute, eta eskuliburuak gutxienez B egoerako 3.1.1 ataletik 3.1.4 atalera bitartean garatutako baldintzak baditu)*

20XX(e)ko ekitaldian programa bakoitzeko emandako diru-laguntzen zerrendatik, sozietateak/enteak/fundazioak emango baitu, hautatu, ausaz, argitaratutako programetako bi, eta programa horietako bakoitzerako hautatu emandako 3 laguntza adierazgarrienak (zenbatekoari dagokionez), eta prozedura hauek egin horiei dagokienez:

(Azaldu sozietate/ente/fundazio horiei aplikatutako prozedura zehatzen zerrenda eta deskribapena. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak onetsi ditu prozedura horiek eta dagokion agindu-gutunean ageri dira)

B EGOERARI dagokionez: *(Egoera hau sozietateei/enteei/fundazioei aplikatuko zaie baldin eta diru-laguntzak emateko alorrerako barne-prozeduren eskulibururik ez badute, edo eskuliburua izanik ere, hurrengo 3.1.1 ataletik 3.1.4 atalera bitartean garatutako gutxieneko baldintzak jasotzen ez baditu)*

20XX(e)ko ekitaldian programa bakoitzeko emandako diru-laguntzen zerrendatik, sozietateak/enteak/fundazioak emango baitu, hautatu, ausaz, argitaratutako programetako bi, eta programa horietako bakoitzerako hautatu emandako 3 laguntza adierazgarrienak (zenbatekoari dagokionez), eta prozedura hauek egin horiei dagokienez:

- 3.1.1. Egiatzatu laguntzen deialdia eta arauak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu direla.

- 3.1.2. Egiaztatu organo eskudunek baimendu dituztela laguntzen arauak eta laguntzak eurak ematea. Sozietatearen estatutuei edo erakundea sortzeko araei begiratuko zaie horretarako.
- 3.1.3. Egiaztatu arau horiek honako alderdi hauek azaltzen dituztela gutxienez:
- Laguntzaren edo diru-laguntzaren xedearen definizioa.
 - Onuradunek laguntza edo diru-laguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak, horiek egiaztatzeko epea eta modua, eta eskaerak aurkezteko epea.
 - Eskaerak aurkezteko epea gutxienez hilabetekoa dela araua argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita, edo, epe laburragoa bada, epe murrizteko arrazoiak azaltzen dituen idazkia dagoela.
 - Laguntza edo diru-laguntza esleitzeko irizpide objektiboak eta, hala badagokio, horien haztapena.
 - Laguntza edo diru-laguntzaren banakako zenbatekoa, edo hori zehazteko irizpideak eta, hala badagokio, laguntzetarako dagoen gehienezko zenbateko orokorra.
 - Bestelako laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin pilatzeko aukera, ala horiekiko bateraezintasuna. Baldintza-agiriekin laguntzak pilatzeko aukera ematen badute, egiaztatu gehiegizko finantzaketa saihesteko muga edo irizpideak ezarri direla.
 - Laguntza edo diru-laguntza kudeatzeko eta horiek ematea ebazteko organo eskudunak, ebazpena emateko epea eta behar bezalako publizitatea izango duela bermatzeko erabiliko den prozedura.
 - Laguntza edo diru-laguntza emateko azaldu zen helburua bete dela eta jasotako funtsak erabili direla justifikatze aldera, onuradunak bete beharreko epea eta modua.
 - Konturako ordainketak eta ordainketa aurreratuak egiteko aukera dagoen kasuetan, egiaztatu onuradunek salbuespen-kasu horietarako eman behar dituzten bermeen epea, ordaintzeko modua eta araubide berezia azaldu direla.
 - Laguntza edo diru-laguntza emateko ezarri ziren baldintzak bete ezean jasotako funtsak itzuli beharra, eta funtsak itzultzeko prozedura.
- 3.1.4. Hauxe ere egiaztatu behar da: erakunde emaileak idatziz adieraztea beharrezko egiaztapenak egin dituela, eta hauxe berretsi: onuradunek egiaztatu izana betekizun eta baldintzak bete, eta laguntza eman edo erabili ahal izateko azalduetako jarduerak egin dituela.

(Diru-laguntzarik eman ez bada, B egoerako prozedurak kenduko dira txostenetik, eta hurrengo lerrokada sartuko da: "Sektore publikoko erakundeen diru-laguntzen araubidea

betetzeaz denaz bezainbatean, ez da prozedurarik gauzatu, sozietateak/enteak/fundazioak ez baitu diru-laguntzarik eman 20XX ekitaldian.)

4. Zuzendaritza-postuen ordainsarien araubidea betetzeari dagokionez, Goren-kargudunen lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legeak ezarri baitu araubide hori, ondorengo prozedurak gauzatu ditugu:

14/1988 Legearen 4. artikuluari dagokionez:

- 4.1. Memoriak Zuzendaritzako karguen ordainsarien koadroa duen egiaztatu, Zirkularraren II. eranskinaren 2.a) puntuan ezarritako formatuaren arabera izan beharko dena. Bertako zenbatekoak ez badatoz bat urteko kontuetan goi zuzendaritzako ordainsarien atalean agertzen direnekin, azalpen bat idatzi behar da alde hori justifikatzeko.
- 4.2. Goi-kargudunen lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 4. artikuluan autonomia-erkidegoko sozietate publikoetako eta zuzenbide pribatuko ente publikoetako zuzendaritzen ordainsari finkoen eta aldirako ordainsarien mugei buruz ezarritakoaren arabera, egiaztatu ordainsari horiek Aurrekontuen Legean bidezko partidan banakatuta azaltzen direnak direla, legeak ezarritako igoera dutela aurreko ekitaldiarekiko, eta inola ere ez dituztela gainditzen sailburuordearen kargurako ezarritakoak.
- 4.3. [Pizgarriak jasoz gero, bermatu gabeko kopurukoak, kudeaketan helburuak edo emaitzak —banaka definituak— lortzeari lotutakoak] hauek egiaztatu:
- sozietateak / enteak bere esku dituela azaldutako helburuen betetzearen ebaluazioa eta pizgarrien likidazioaren onarpena, Administrazio Kontseiluak egina.
 - memoriako ordainsarien koadroan azaldutako zenbatekoak bat datozela Administrazio Kontseiluak onetsitako pizgarri horiekin.
 - kontzeptu guztiak direla eta—bermatu gabeko kopuruko pizgarriak barne— jasotako urteko soldataren zenbatekoak inoiz ez dituela gainditzen Eusko Jaurkitzako sailburu bati dagozkion urteko lansari osoak.

14/1988 Legearen 6. artikuluari dagokionez:

- 4.4. Egiaztatu sozietate publikoetako eta zuzenbide pribatuko ente publikoetako zuzendaritza-langileen aldeko kalte-ordainak bat etorri direla, beti ere, 14/1988 Legeak aurreikusitako araubidearekin, edo, onuragarriagoak bazaizkie, langile horiei aplikatu beharreko lan-legerian jasotako aginduzko zuzenbideko gutxienekoekin.
5. Egiaztatu aurrekontuan azaldutako plantilla eta ekitaldiaren amaierako benetako plantilla (memorian azaldu dena) bat datozela, hurrenez hurren, 20XX(e)ko ekitaldirako EA Erako onetsitako aurrekontuetan azaldutakoarekin eta sozietatearen/entearen/fundazioaren urteko kontuetan azaldutako informazioarekin eta, hala badagokio, aurrekontuan azaldutako plantillaren eta benetako plantillaren arteko aldeei buruzko azalpena agertzen dela. Zirkularraren II. eranskineko 2.b) puntuan jarritako formatuarekin sartu behar da informazio hori memorian.

6. Egiaztatu ea EAErako onetsitako aurrekontuek geroko konpromisorik jasotzen duten sozietatearen/erakundearen/fundazioaren alde. Erantzuna baiezkoa bada:
 - 6.1. Egiaztatu ea memoriak gerorako konpromisoak erabiltzeko koadroa jasota ote duen, Zirkularraren II. eranskinei 3) puntuan ezarritako formatuari jarraikiz. Halaber, egiaztatu ea hasierako gordailuak bat datozen EAeko aurrekontuetan hasieran onetsitakoekin eta, aldaketarik egonez gero, ea agiri bidez egiaztatuta geratu ote den EAeko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 97.3. artikuluan ezarritako eskakizunen arabera onartu direla aldaketa horiek. Egiaztatu, halaber, ea 20XX(e)ko abenduaren 31n konprometitutako zenbatekoa bat datorren sozietatearen/erakundearen/fundazioaren urteko kontuetan jasotako konpromisoen zenbatekoarekin.
 - 6.2. Egiaztatu 20XX/12/31n ez dela konprometitu ekitaldirako eguneratutako kreditua gainditzen duen zenbatekorik, kontuan hartuta, Euskadiko aurrekontu araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bateginaren 97.3. artikulua xedatzen duen moduan, gerorako konpromisoen egoera handiagotzeko, konpromiso berriak onartuz edo baimendutakoen zenbatekoa handiagotuz, Gobernu Kontseiluak akordioa onartu behar duela, aurrekontuen alorrean eskumena duen sailaren proposamenari jarraikiz, eta, hala badagokio, baita EAeko sektore publikoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, sozietate publikoek eta fundazioek arduratzen diren organoek ere; betiere, erakunde guztientzat hasieran baimendutakoen guztirako zenbatekoaren %15ean handiagotu ahal izango dira gehienez, eta, hiru hilean behin, baimen horien berri eman beharko zaio Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari.
7. Ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileei eta ibilgetuko ondasun-hornitzaileei 20XX ekitaldian egindako ordainketen gaineko informazioan, orobat 20XX/12/31n ordaindu gabe zeuden saldoei buruzkoan, hurrengo prozedurak egin ditugu:
 - 7.1. Egiaztatu dugu memoriak barne duela informazio horri buruzko taula, Zirkularraren II. eranskinaren 4. puntuan ezarritako formatuaren arabera.
 - 7.2. Egiaztatu dugu hornitzaileei egindako ordainketen eta hornitzaileei ordaindu gabeko saldoen gaineko informazioa, ekitaldiko urteko kontuetan sartu dena, bat datorrela sozietateak/enteak/fundazioak aurreko 7.1 atalean aipatu den taulan sartu dituen zenbatekoekin.
 - 7.3. 20XX ekitaldian hornitzaileei ordainketarik eginez gero 30 eguneko epea gaindituta, eta/edo ekitaldiaren itxieran, 20XX/12/31n, hornitzaileei ordaindu gabeko saldorik izanez gero 30 eguneko gehieneko epetik gora, memoriak badakar atzerapen horien motibo / zio / arrazoiei buruzko azalpen laburra.
8. Adierazpen-gutun bat eskatzea: sozietatearen/entearren/fundazioko zuzendaritzaren eta/edo administratzailearen sinadura beharko du.

[1. EGOERA: Arestian aipatutako prozedurak aplikatzean ez bada txostenean azaltzeko moduko alderdirik antzeman, kontuan izanda ez dagoela materialtasun-atalaserik antzemandako gorabehera eta ez-betetzeak azaltzean, eta erabiltzaileak berak atera behar dituela bere ondorioak.]

Arestian aipatutako prozedurak aplikatzean ez da aipatzeko moduko gairik ikusi.

[2. EGOERA: Salbuespen guztiak zehaztu, kontuan izanda ez dagoela materialtasun-atalaserik antzemandako gorabehera eta ez-betetzeak azaltzean, eta erabiltzaileak berak atera behar dituela bere ondorioak.]

Gure lana gauzatzean agertu diren gertakari zehatzen berri emango dugu orain:

[Antzemandako gertakari zehatzen deskribapena, zehaztasun-maila egokia eta aurkitu ahal izan diren akats edo salbuespenak barne.]

Deskribatutako prozedurak ez direnez ikuskaritza bat, ez eta Ikuskaritzako Arau Teknikoen arabera egindako berrikuspen bat ere, ez dugu iritzirik emango memorian *(eta, hala badagokio, eranskinetan)* azaldutako informazioari buruz. Prozedura osagarriak aplikatuz gero, litekeena da beste gai batzuk azaldu izana, eta horiei buruzko txostena ere egingo genuen.

Aurrekontua betetzeari eta legezketasunari buruzko adostutako prozeduren txosten hau bakarrik ematen da Eusko Jaurlaritzak 2013ko uztailaren 9an hartutako akordioaren testuinguruan ezarritako helburua betetzeko, baita zure informaziorako ere, baina ezin da beste helbururen baterako erabili, eta ezin izango zaie beste batzuei banatu, aurretiaz baimendu ez badugu, ez bada Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, sozietatea/entea/fundazioa atxikita dagoen Eusko Jaurlaritzako sailei eta lege-aginduz eska lezaketen beste batzuei. Ez dugu inolako erantzukizunik izango txosten honen hartzaileak ez diren hirugarrenen aurrean.

Txosten honetan hauxe baino ez da aztertzen: XYZ, S.A.-ko zuzendaritzak emandako informazioa, aurreko ataletan aipatu dugun araudia bete izanari buruzkoa. Txostenaren xedea, beraz, ez dira sozietatearen/entean/fundazioaren finantza-egoerak, oro har hartuta.

[Sinadura (ez KIEOko kide gisa)]

[Data]

Eta, horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut, Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 5ean.



VI. ERANSKINA ENPRESA LIZITATZAILEAREN OINARRIZKO DATUAK

Enpresa lizitatzaillearen izena	
IFK / IFZ Jarduera nagusia	
Helbide soziala	Zentrala:
	Bulegoak EAEn:
Harremanetarako	Harremanetarako pertsona:
	Helbidea:
	Tel.:
	Faxa: e-mail:
Langile-kopurua	Guztira:
	EAEn:
Negozio bolumena	Guztira:
	EAEn:
Akziodunen edo enpresa taldearen izena	
Kontratisten Erregistro Ofizialaren Ziurtagiria (bai/ez)	
Kudeaketa sistemen ziurtapena (ISO, UNE edo baliokideak)	

EEE/EVEk, Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011 Bilbon helbidea duenak, hauxe jakinarazten du: hornitzaileek emandako datu pertsonalak edo geroago sortuko direnak fitxategietan sartuko direla eta EEE/EVEren ardurapean geratuko direla.

Datu horiek kontratazio prozesua egiteko erabiliko dira eta, hala badagokio, kontratuen behin behineko esleipenaren ondorioz sor daitekeen harremana bideratzeko eta kontrolatzeko, baita aplikagarria izan daitekeen araudia betetzeko ere.

Nolanahi ere, hornitzaileak datu horiek ikusteko, aldatzeko, ezabatzeko eta inori ematen ez uzteko eskubideak erabil ditzake, datu pertsonalak babesteko legeriak xedatutakoari jarraiki. Horretarako, goraxeago aipatzen den EEE/EVEren helbidera idazki bat bidali behar du, bertan nor den behar bezala egiaztatuz.

Hornitzaileak honako konpromiso hau hartzen du: eskaintzaren bat aurkeztutako pertsonarekin zerikusia duen edozein pertsona fisiko/juridikoaren datu pertsonalak EEE/EVEri eman aurretik eta, hala badagokio, kontratu baten esleipenaren ondoren, pertsona fisiko/juridiko horri aurreko paragrafoetan azaltzen diren testuen edukiaren eta gainerako eskakizunen berri emateko. EEE/EVEk bestelako jarduera gehigarri egin beharrik gabe. Era berean, emandako datuen inguruan egin ditzakeen aldaketek eta ezabaketek EEE/EVEri informazioa emateko konpromisoa hartzen du hornitzaileak.



VII. ERANSKINA
ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIAL IZENDATZEKO
EREDUA (hautazkoa aurkeztea)

Izen-abizenak:
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:
Ordezkatzen duen enpresa:
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:
Enpresaren bulegoen helbidea:

ADIERAZTEN DU

(*) zenbakidun kontratazio-espeditenteko (*gutun-azala zein den zehaztu*) gutun-azalean jasotako agirietatik, jarraian aipatzen diren informazioak eta eskaintzako alderdiak konfidentzialak direla, merkataritzako sekretuekin edo sekretu teknikoekin lotura izateagatik. Hauek dira, beraz, agiri konfidentzialak:

Adierazten du, baita ere, agiri horiek konfidentzialak direla ondoko arrazoi hauengatik:

[...]n, 2016ko []aren(e)an.

[*Enpresaren/lizitatzaillearen izena*].
Ahalordez.

(*) Plegu honetako karatulan dagoen espediente zenbakia idatzi.



IX. ERANSKINA
AZPIKONTRATATZEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Izen-abizenak:
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:
Ordezkatzen duen enpresa:
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:
Enpresaren bulegoen helbidea:

ADIERAZTEN DU

Azpikontrazio hau,

JARDUERA	KONTRATUAREN PREZIOAREN EHUNEKOA (BEZik gabe)	ENPRESA AZPIKONTRATISTA

() Erantsi azpikontratatzeko konpromisoa edo gutuna eta enpresa azpikontratisten kaudimen teknikoari edota profesionalari lotutako baldintzen inguruko erreferentziak.*

[...]n, 2016ko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena].
Ahalordez.



X. ERANSKINA KONTRATUA ALDATZEKO ARRAZOI KONBENTZIONALAK

Kontratua honako arrazoi honegatik alda daiteke:

- Lanen edo bolumen unitateak gehitu, murriztu edo kentzeagatik, kontratazio prozedura hasteko unean zehaztasun osoz finkatzea ezinezkoa denez, beharrezkoak badira.



XI. ERANSKINA
GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO
KONPROMISOAREN ADIERAZPENA

Izen-abizenak:
Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:
Ordezkatzen duen enpresa:
Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:
Enpresaren bulegoen helbidea:

[...] espediente zenbakia duen LEHIAKETARI dagokionez,

ADIERAZTEN DU

Ordezkatzen duen pertsonak edo erakundeak ez du zigor larririk jaso, ezta kondenarik ere, erabaki administratiboaren bidez edo epai irmoaren bitartez, langileen estatutuaren edo aplikagarria den lan itunaren berdintasunari lotutako betebeharrak ez betetzeagatik.

3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzen duela, martxoaren 22ko Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eragingarriaz diharduena.

KONPROMISO HAU HARTZEN DU

Otsailaren 18ko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunaz diharduen 4/2005 Legeak (EHAA, 2005eko martxoaren 5ean) xedatzen dituen betebeharrak bere gain hartzeko, administrazioetik laguntza jaso, harekin kontratuak egin edo lankidetzan aritzen diren erakundeei dagokienez:

- Honako printzipio hauek betetzeko konpromisoa: tratu berdina, aukera berdintasuna, dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea langile guztien artean (3. artikulua).
- Haien jardunetan genero-ikuspegi integratzeko, ekintza positiboa bultzatzeko, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerrarazteko konpromisoa (3. artikulua).
- Zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetakoko kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoen artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izateko konpromisoa (23. artikulua).
- Estatistika eta azterlanak prestatzerakoan, genero-ikuspegia kontuan hartzeko konpromisoa, sexuaren araberako datuak bildu eta aurkeztuz (16. artikulua).
- Sortzen dituzten dokumentu eta euskarrietan hizkera eta irudi sexista ez erabiltzeko konpromisoa (18.4 artikulua).

Eta horrela jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen du,, 20..,, ...

Sinadura